



Amorebieta Etxanoko Udala

## **AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO ORDENANTZA ETA GIZARTE-ONGIZATE, KIROL, KULTURA, HEZKUNTZA NAHIZ EUSKARA ARLOETAKO DIRU- LAGUNTZEI BURUZKO ARAU BEREZIAK**

---

### **ZIOEN AZALPENA**

Udal korporazio honen lehenbiziko jomuga betidanik izan da bertoko auzotarrek arlo desberdinetan azaldu eta eskatutako beharrian zein kezkei erantzutea, eta Amorebieta-Etxanoko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokor honen bidez, helburu hori erdiesteko arauketa ezarri nahi izan da. Horretara, Ordenantza Orokor hau erabilia, auzotarren ekonomia- nahiz gizarte-eskakizunei aurre egingo zaie, sustapen-jarduera eta horren tresna nagusia, diru-laguntzak, bultzatuz.

Horren eretzean, azpimarra daiteke Herri Administrazioaren jarduera modu askotara sailka daitekeela (Administrazio horretara biltzen dira, besteak beste, Toki Administrazioa osatzen duten erakundeak, eta, zehatzago esanda, udalerrriak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 2. artikulua eta Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 3. artikulua hurrenez hurren ezartzen duten bezala). Praktikan nahiz esparru juridikoan, alabaina, Jordana de Pozasek eginiko sailkapena erabili ohi da gehienbat, eta Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Erregelamenduan ere horixe agertzen da; sailkapena egiteko irizpidea jardueraren forma da, eta, horren ariora, polizia-jarduera, sustapen-jarduera eta herri-zerbitzua bereizi dira. Sailkapen horri ekinez, haxe izango litzateke sustapen-jardueraren definizioa: jarduera horren bitartez bultzatu edo sustatzen dira, batetik, beharrian publikoak betetzeko ekintza, establezimendu zein aberastasunak, gehienetan norbanakoek ekarritakoak, eta, bestetik, derrigortzea erabili gabe (halakoa polizia-jardueran sartuko litzatekeelako) nahiz herri-zerbitzurik eskaini gabe (esangura hertsian hori herri-zerbitzuko jarduera izango bailitzateke), interes orokorrekoak direnak.

Herri Administrazioek sustapen-jarduera hori bultzatu eta gehiago gara dezaten, eta, aldi berean, Herri Administrazio guztiek aplikatzeko moduko esparru juridikoa eta printzipio orokor batzuk egon daitezen, 2003. urteko azaroaren 17an Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra onetsi zen. Ildo bertsutik, 2006. urteko uztailaren 21ean 38/2003 lege horren erregelamendua onetsi zen, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez; horretara, legearen azken xedapenetatik hirugarrena bete da, bertan jasotako aurreikuspenak gauzatu ahal izateko.

Arean, DLOk agindu bezala, diru-laguntzak emateko oinarriak arautu behar dira, eta toki korporazioetan, arauok aurrekontua betearazteko oinarrien eremuan onetsi behar dira, diru-laguntzei buruzko ordenantza orokor baten bitartez, edota diru-laguntza mota bakoitzari buruzko ordenantza bereziaren bidez.



Amorebieta Etxanoko Udala

Hori guztia gogoan izanda, Amorebieta-Etxanoko Udalaren erronka da bere zereginaren zatirik esanguratsuen sustapen-teknikaren bitartez gauzatzea; izan ere, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.1. artikulua dioenez, udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jardueren mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake. Horregatik, udalak erabaki du ordenantza hau onestea, diru-laguntzak emateko oinarriak arautzeko.

Beste alde batetik, ezin ahantz daiteke ikuspegi ekonomikotik diru-laguntzen arloak aurrekontu publikoaren zati esanguratsua osatzen duela, eta, horregatik, arlo hori bat etorri behar da, bateko, aurrekontu-politikaren zuzentzauekin, eta, besteko, egonkortasunaren nahiz hazkunde ekonomikoaren irizpideekin; egun, Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesteko 2/2007 Legegintzako Errege Dekretuak, abenduaren 28koak, arautu ditu irizpide horiek.

Edonondik begira dakiola ere, ordenantza honek aplikatu beharreko arautegiari ekin nahi dio; hortaz, diru-laguntzak kudeatzean, arau horien arabera printzipio kontuzkoenak azpimarratu dira, hala nola, objektibotasuna, berdintasuna, publikitatea, gardentasuna, elkarlehia, bereizkeriarik eza, efikazia eta eragingarritasuna.

Hori guztia dela bide, udal korporazioak erabaki du ordenantza orokor hau onestea, diru-laguntzak ematerakoan Amorebieta-Etxano udalerriko beharrezko nahiz inguruabar zehatzak asetzeko, eta, aldi berean, udalerriko honetako auzotar guztientzat benetan interesgarriak diren jarduerak bultzatzeko, Amorebieta-Etxanoko Udalak diru-laguntzen esparruan ezarritako Plan Estrategikoarekin bat etorriz.

Bide bertsutik, azpimarratu behar da ordenantza Amorebieta-Etxanoko Udalari aplikatuko zaiola, eta testuan zehar hori aipatzen denean, ulertu behar da Lurralde Administrazioa ez ezik, udal erakunde autonomoak ere ekartzen direla hizpidera. Beste hitz batzuek esanda, udala aipatzen dugunean, aipamen horretara biltzen dira bertako erakunde autonomo guztiak ere, mendeko herri administrazio eta udal zerbitzu nahiz jardueren kudeatzaile baitira horiek.

## **I. TITULUA. DIRU-LAGUNTZAK OROKORREAN**

### **LEHENENGO KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua. Xedea**

Udal arau hau ordenantza orokorra da, berorren xedea jarraikoa izanik: Amorebieta-Etxanoko Udalak zein bertako erakunde autonomoek eman beharreko diru-laguntzei buruzko arauketa orokorra ezartzea, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.2 eta 17. artikuluek ezarritakoarekin bat etorriz; horretara, udalak nahiz erakundeok diru-laguntzak emateko printzipio eta prozedura jorratu dira, diru-laguntzak



Amorebieta Etxanoko Udala

emanez sustapen-jarduera gauzatzen delako, arauketa honen zioen azalpenean azaldu bezala.

## **2. artikulua.- Araubidea**

Ordenantza honek ez ezik, hurrengo xedapenek ere arautzen dituzte Amorebieta-Etxanoko Udalak emango dituen edo eman ahal dituen diru-laguntzak:

- Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, abenduaren 17koak.
- Uztailaren 21eko 887/2206 Errege Dekretuak, 38/2003 Legearen Erregelamendua onesten duenak.
- Toki Arautegiak, batez ere, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak.
- Abenduaren 2ko 10/2003 FAK, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak.
- Abenduaren 16ko 9/2005 FAK, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzkoak.
- Amorebieta-Etxanoko Udalaren Aurrekontu Orokorrak eta Aurrekontua Betearazteko udal arauak.
- Administrazio zuzenbideko beste xedapen batzuek, aplikagarriak diren heinean.
- Halakorik izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

## **3. artikulua.- Printzipio orokorrak**

1.- Diru-laguntzak emateko jarduera gauzatzean, Amorebieta-Etxanoko Udalak hurrengo printzipioak izango ditu kontuan, nahierakotasunik eta bereizkeriarik gerta ez dadin:

- a) Publizitatea, aldez aurretik eta gero: diru-laguntza eman baino lehen, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira deialdia eta oinarri zehatzak; diru-laguntza izendatuen kasuan, berriz, horiek udalaren aurrekontuan aipatuko dira. Diru-laguntza eman eta gero ere, publizitatea egin beharko da, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikulua agindu bezala, eta, betiere, bertan zehaztutako salbuespenak kontuan izanda.
- b) Gardentasuna, objektibotasuna eta berdintasuna, elkarlehia askearen eta bereizkeriarik ezaren erregelak errespetatuz; horretara, diru-laguntzak ematerakoan, eskuzabaltasun hutsean oinarritzen diren erabakiak deusezak izango dira.
- c) Elkarlehia askea, diru-laguntzak emateko prozedura arruntean ageriko dena.

2. Gisa bertsuan, diru-laguntzak kudeatzean, ahaleginak egingo dira aurrekontu-egonkortasunaren xedea erdiesteko; egin-eginean ere, udalak modu eragingarrian



Amorebieta Etxanoko Udala

esleitu eta erabiliko ditu herri-baliabideak, finkatutako helburuak bete ahal izateko. Hortaz, udalak bidezkoak deritzen baliabideak erabil ditzake ondokoa kontrolatzeko: diru-laguntzapeko xedea betetzeko gastu egokiak egin dituela onuradunak.

3.- Diru-laguntzak borondatezkoak eta noizbehinkakoak izango dira, salbu eta legeak edo erregelamenduak beste zerbait agintzen duenean; horregatik, onuradunak ez du izango eskuratutako eskubiderik, eta diru-laguntza jasotzeak ez du esan nahi hurrengoetan ere jasoko denik.

4.- Udalak emandako diru-laguntza eskuratzeko, helburua herri-interesekoa izan behar da, eta diru-laguntza helburu horri lotu behar zaio. Diru-laguntza itzuliko da, berori jasotzeko baldintzak betetzen ez direnean bakarrik; baldintza horiek ezar daitezke, dela ordenantza honetan zein bestelako arau aplikagarrietan, dela oinarri berezietan nahiz deialdian.

5.- Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoak ezin du gainditu hurrengo kopurua, berak bakarrik edo onuradunak beste erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako beste laguntza batzuekin batera: laguntzapeko xedearen kostua, edota deialdiak zein oinarri arautzaileek ezarritako kopuru txikiagoa. Edozein kasutan ere, udalak oinarri horietan ezar dezake diru-laguntza bateraezina dela beste edozein erakundek emandako laguntzekin.

Horrez landara, diru-laguntza arautzeko oinarriek agin dezakete onuradunak zerbait ekarri behar duela, laguntzapeko helburu, proiektu edo jarduera finantzatzeko, eta modu sinesgarrian egiaztatu behar da ekarpen hori egin dela.

## **BIGARREN KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZEN XEDEA ETA SUBJEKTUAK**

### **4. artikulua—Diru-laguntzaren kontzeptua**

Ordenantza hau aplikatzeari dagokionez, eta indarreko arautegiak ezarritakoarekin bat etorriz, *diru-laguntza* da Amorebieta-Etxanoko udalak pertsona fisiko nahiz juridikoei, publiko zein pribatuei emandako dirua, honako betekizunak betetzen direnean:

- Laguntza eman behar da, onuradunek zuzeneko kontraprestaziorik egin gabe.
- Diru-laguntza emango da, helbururen bat bete behar delako, proiekturen bat garatuko delako, jarduera zehatza burutuko delako, jokabide jakina gauzatu delako edo gauzatu delako, edota egoera bereziren bat gertatzen delako; onuradunak, betiere, ezarri diren betebeharrak material eta formalak burutu beharko ditu.  
Edozein kasutan ere, gauzatzen den helburu, proiektu, jarduera nahiz jokabidea izan behar da kasuan kasuko diru-laguntza arautzeko oinarriek zehaztutakoa, bertan aipatu ezaugarriak kontuan izanda.
- Proiektu, ekintza, jokabide edo egoera finantzatuaren helburua izan behar da herri-intereseko jarduera nahiz gizarte-interesekoa bultzatzea, edota helburu publikoa sustatzea.



Amorebieta Etxanoko Udala

Ordenantza honek araututako diru-laguntzaren kontzeptutik kanpo geratzen dira:

- Udalak eginiko diruzko ekarpenak, diru hori ondokoei eman zaienean:
  - Herri Administrazioei
  - Beraren mendeko erakunde autonomoei edo enpresa-erakunde publikoei, erakunde horiek euren eskumen-esparruaren barruan finantzatu nahi direnean.
- Elkarte bateko kide moduan udalak ordaintzen dituen kuotak, toki erakundeek halako elkarreak sortzen dituztenean euren interes erkideak babestu eta bultzatzeko, Toki-araubidearen Oinarriak arautzeko Legearen 5. xedapen gehigarriak ezarri bezala.
- Onuradunak eskatu gabe emandako sariak.
- Alderdi politikoak finantzatzeko diru-laguntzak.
- Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 2.3 eta 4. artikuluetara bildutako besteak.

## **5. artikulua.- Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak**

Diru-laguntza bakoitzari buruzko deialdiak eta oinarri bereziek nahiz udalak onetsitako plan estrategikoak zehaztuko dituzte diru-laguntza jaso dezaketen helburu, jarduera, proiektu edo jokabideak, betiere, ordenantza honetan xedatutakoarekin bat etorriz.

## **6. artikulua.- Subjektu parte-hartzaileak**

*1.- Organo emailea:* Amorebieta-Etxanoko Udalak diru-laguntza eman nahi duenean, organo eskuduna alkatea edo zinegotzi eskuordea izango da, sail bakoitzean gastuak erabakitzeko eta ordainketak egiteko eskumena nori dagokion kontuan hartuta; edozein kasutan ere, diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izan daiteke aurrekontuko baliabide arruntan ehuneko 10etik gorakoa, edota 6.000.000,00 €tik gorakoa, urteanitzeko baliabideak barne, baldin eta horien iraupena lau urtetik beherakoa bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 2. xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera. Zenbateko horiek gainditzen direnean, udalaren osoko bilkurak emango du diru-laguntza.

Erakunde autonomoetan ulertuko da eskumen horiek lehendakariari edo Batza Artezkariari dagozkiola.

*2.- Onuraduna:* Diru-laguntza ematea bidezkotzen duen egoera zein izan, eta egoera hori bizitzen ari den pertsona fisiko edo juridikoa, publikoa zein pribatua, edota oinarri arautzaileen eta, hala denean, deialdiaren arabera, diru-laguntza jasotzea dakarren jarduera gauzatzen duena.

Pertsona juridikoen eta nortasunik gabeko elkartzeen kasuan, legeria orokorraz gain, deialdi eta oinarri arautzaile zehatzak izan beharko dira kontuan, horiek ezartzen baitituzte kasu bakoitzean bidezkoak diren ñabardura eta betekizun bereziak.



Amorebieta Etxanoko Udala

Zernahi gisaz, ezin daitezke onuradun izan, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatu kasuetan daudenak, salbu eta oinarri arautzaile bereziek horren gaineko salbuespena ezartzen dutenean.

3.- *Erakunde laguntzailea*: Amorebieta-Etxanoko Udalaren izenean eta kontura dirua onuradunari ematen diona, edota diru-laguntza kudeatzean udalarekin elkarlanean ari dena.

Legeria orokorrari ekinez, halakoak izan daitezke:

- a) Herri Administrazioen partaidetza duten herri-erakundeak eta merkataritzako sozietateak.
- b) Udala elkarte bateko kide denean, elkarte hori, baldin eta toki erakundeek sortu badute, euren interes erkideak babestu eta bultzatzeko, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 5. xedapen gehigarriak ezarri bezala.
- c) Beste pertsona fisiko zein juridikoak, oinarri arautzaileetan ezarritako kaudimen- zein eragingarritasun-baldintzak betetzen dituztenean.
- d) Estatuko Administrazio Nagusia eta horren erakunde autonomoak.

Edozein kasutan ere, ezin daitezke erakunde laguntzaile izan, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatu kasuetan daudenak, salbu eta laguntza bakoitzari buruzko arau bereziak salbuespena ezartzen duenean, horren izaera gogoan izanda. Erakunde laguntzaileak, betiere, kasuan kasuko kaudimen- zein eragingarritasun-baldintzak bete beharko ditu, eta arau orokor gisa, betetze hori egiaztatzeko bideak kontratazio publikoari buruzko legeriak ezarritakoak izango dira:

- Kaudimena neurtzeko, diru-laguntzak kudeatzeko gaitasuna hartuko da kontuan, bai ekonomia- zein finantza-ikuspegitik begiratuta, bai ikusmira profesional eta tekniko gogoan izanda.
- Eragingarritasuna neurtzeko, berriz, diru-laguntza publikoa kudeatzeko baliabideen egokitasuna aztertuko da.

Erakunde laguntzailearen izaera lortzeko, proposamena Amorebieta-Etxano Udaleko Kontu-hartzailetzak egingo du, behin interesdunen eskabidea jaso eta gero; eskabide horretan hauxe agerrarazi behar da:

- Erakundea identifikatzeko datuak.
- Baliabide ekonomikoen kopurua, eurotan adierazita.
- Langileak.
- Baliabide teknikoen zerrenda.

## 7. artikulua.- Onuradunen betebeharrak

Legeria orokorrak edo deialdi berezi bakoitzak ezarritakoez landara, Amorebieta-Etxanoko Udalak emandako diru-laguntzen onuradun diren pertsona zein erakundeek hurrengo betebeharrak dituzte:

- a) Diru-laguntza ekarri duen helburua bete, proiektua betearazi, jarduera gauzatu edota jokabidea burutzea, hala denean, udalak ezarritako ñabardurei men eginez.



Amorebieta Etxanoko Udala

- b) Hala denean, diru-laguntza eman duen organo edo erakunde laguntzaileari egiaztatzea betekizun eta baldintza guztiak bete direla, eta diru-laguntza jasotzea ekarri duen helburua ere bete dela; hori egin ezean, Amorebieta-Etxanoko udalak ez dio diru-laguntza gehiago emango erakunde horri.
- c) Diru-laguntza eman duen organoak edo erakunde laguntzaileak zerbait aztertu nahi duenean, azterketa hori ahalbidetzea, baita nazioko zein Europako kontrol-organo eskudunek egiten dituzten azterketak eta finantza-kontrolak ere; beraz, halako jardunaren ondorioz eskatzen zaien informazioa eman beharko dute.
- d) Laguntzapeko jarduera finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat jaso denean, horren berri ematea udal honetan diru-laguntza eman duen organoari edo erakunde laguntzaileari. Berriemate hori egin beharko da beste diru-laguntza jaso dela jakin bezain pronto, eta, betiere, jasotako funtsei emandako destinoa bidezkotu baino lehen.
- e) Ematearen inguruko ebazpen-proposamena egin baino lehen, tributu betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak gauzatu direla egiaztatzea, erregelamendu bidez zehaztu bezala, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarriak ezarritakoari kalterik egin gabe. Halaber, onuradun bakoitzak 3.000,00 € baino gutxiago jasotzen duen diru-laguntzaren kasuan, ziurtagirien ordean, onuradunak adierazpen arduratsua egin dezake atal horiek egiaztatzeko; ezin izango da halakorik egin, ordea, ordenantza honen II. tituluak aipatu kasu zehatzetan.

Udalak berak egiaztatuko du onuradunak Amorebieta-Etxanoko Udal Ogasunari zor dion guztia ordaindu diola.

Tributu-betebeharrak bete ez badira, hamar eguneko epean bete beharko dira, salbu eta oinarri arautzaileek beste epe bat xedatzen dutenean.

- f) Kontabilitate-liburu, diligentziadun erregistro eta gainerako agiriak izateaz gain, horien auditoretza egitea, merkataritzako legeriak eta onuradunari aplikatu beharreko sektore-legeriak ezarritakoaren arabera; halaber, diru-laguntzak arautzeko oinarriek agindutako kontabilitate-orri nahiz erregistro bereziak ere edukitzea, egiaztatze- eta kontrol-ahalmenak behar bezala gauzatu ahal izateko.
- g) Jasotako funtsen aplikazioa bidezkotzen duten agiriak gordetzea, baita agiri elektronikoak ere, horien gaineko egiaztatze- eta kontrol-jarduna gauzatu ahal delako.
- h) Publizitate egokia ematea diru-laguntzapeko xedea modu publikoan finantzatu izanari, udalak eskaintako babesak aipatuz.
- i) Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulura bildutako kasuetan, jasotako funtsak itzultzea.
- j) Diru-laguntza onartzea, emate-baldintzen ondoretarako. Besterik zehaztu ezean, ematea jakinarazi zenetik gehienez hamabost eguneko epean ez bazaio beren beregi uko egin emate horri, ulertuko da onartu dela.
- k) Garatu beharreko jarduera zein motatakoa izan eta horren indarreko arautegi berezia betetzea.
- l) Udalarekin elkarlanean aritzea, hala eskatzen denean, diru-laguntzapeko xedeari buruzko informazioa emanda.
- m) Udalak erabakitako ikuskatze-jarduna onartzea.



Amorebieta Etxanoko Udala

- n) Amorebieta-Etxanoko Udalak erabakitzen dituen beste betebeharrak, diru-laguntza behar bezala erabiltzen dela eta laguntzapeko jarduera modu egokian gauzatzen dela bermatzeko.

## **8. artikulua.- Erakunde laguntzaileen betebeharrak.**

Legeriak berak edo udalak elkarlanerako hitzarmenean ezarritako betebeharez gain, hurrengoak ere bete behar dituzte erakunde laguntzaileek:

- a) Jasotako funtsak onuradunei ematea, diru-laguntzak arautzeko oinarrietan eta erakunde emailearekin sinatutako hitzarmenean xedatutako irizpideen arabera.
- b) Hala denean, ondokoa begiratzea: batetik, ematea ekarri duten baldintza eta betekizunak betetzen direla eta horiek eragingarriak direla, eta, bestetik, diru-laguntza ematea edo horretaz gozatzea ahalbidetu duen jarduera gauzatzen dela edo laguntzapeko helburua betetzen dela.
- c) Jasotako funtsak eman direla egiaztatzea diru-laguntza eman duen organoari, eta, hala balegokio, onuradunek aurkeztutako egiaztapena ematea.
- d) Diru-laguntza eman duen organoak zerbait aztertu nahi duenean, azterketa hori ahalbidetzea, baita nazioko zein Europako kontrol-organo eskudunek egiten dituzten azterketak eta finantza-kontrolak ere; beraz, halako jardunaren ondorioz eskatzen zaien informazioa eman beharko dute.
- e) Amorebieta-Etxanoko Udalak erabakitzen dituen beste betebeharrak, diru-laguntza behar bezala kudeatzen dela bermatzeko.

## **9. artikulua.- Elkarlanerako Hitzarmena**

Amorebieta-Etxanoko Udalak erakunde laguntzailearen bitartez kudeatzen dituen diru-laguntzak, elkarlanerako hitzarmena sinatu behar da, erakunde horrek zenbait betekizun nahiz jokabide bete ditzan, hain zuzen ere, elkarlana bidezkoa izatea ekarri dutenak. Hori dela bide, hitzarmenak ondokoa jaso behar du gutxienez:

- a) Elkarlanaren xedea eta erakunde laguntzailearen identifikazioa. Xedea zehatza izan behar da, eta jarduerak banan-banan definituko dira, horien betepena, jarraipena eta kontrola errazagoak izan daitezten.
- b) Erakunde laguntzaileak kudeatuko dituen diru-laguntzei buruzko oinarri eta arauen identifikazioa.
- c) Elkarlanerako hitzarmenaren iraupen-epea, 4 urtetik beherakoa izan behar dena. Luzapenak ezar daitezke, baina halakoek ezin dute gainditu jatorrizko hitzarmenaren indarraldia; arean, hasierako epearekin batuta, hitzarmenak guztira ezin du iraun 6 urte baino gehiago.
- d) Administrazio-organo emailearen mesederako eratu behar diren berme-neurriak, eta horiek sortu eta ezerezteko prozedura; ez bada beharrezkoa bermerik eratzea, hori azaldu behar da.
- e) Diru-laguntzak kudeatzeko prozeduraren fase bakoitzean erakunde laguntzaileak bete eta betearazi behar dituen betekizunak.
- f) Funts publikoak banatzen lagundu bada, zehaztu behar da noiz eman zaizkion funtsak erakunde laguntzaileari eta funts horiek zer-nolako baldintzetan gordailutuko diren, onuradunei eman arte.





Amorebieta Etxanoko Udala

- g) Funts publikoak banatzen lagundu bada, administrazio-organoak emandako funts horiek onuradunen esku uzteko baldintzak.
- h) Azaldu behar da onuradunek nola egiazta dezaketen diru-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituztela, eta betepen hori nola ziurtatu ahal den.
- i) Onuradunek diru-laguntzen egiaztapena aurkezteko epea zein modua, eta, funts publikoak banatzen lagundu bada, erakunde laguntzaileak funtsak onuradunei eman dizkiela egiaztatzeko epea eta modua.
- j) Erakunde laguntzaileak eraman beharreko kontabilitate-liburu eta erregistro berezien zehaztapena, errazagoa izan dadin, bateko, diru-laguntzaren egiaztapena eta, besteko, baldintzen azterketa.
- k) Diru-laguntza emateko betekizun nahiz betebeharrak betetzen ez diren kasuetan, funtsak itzultzeko betebeharra.
- l) Erakunde laguntzaileak duen betebeharra, egiaztapen- nahiz kontrol-jarduna onartzeko.
- m) Hala denean, erakunde laguntzailearen mesederako ezarri den konpentsazio ekonomikoa.

Erakunde laguntzaileen hautaketari eta aplikatu beharreko araubideari helduta, kontratazio publikoaren printzipio orokorrak izan behar dira kontuan; horretarako, igorpena egin da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legea, baldin eta elkarlana lege horrek araututako kontratu baten xedearekin lotu ahal bada. Halakoetan, administrazio-kontratuen arautegiak agindutakoa ere sartu behar da hitzarmenean, eta beren beregi aipatuko da legeak erakunde laguntzaileei ezarritako gainerako betebeharrak bete behar dituela kontratariak.

## **HIRUGARREN KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZA EMAN AURRETIK BETE BEHAR DIREN BETEKIZUNAK**

### **10. artikulua.- Oinarri Arautzaile Bereziak**

Aplikatu beharreko emate-prozedura edozein izanda ere, Amorebieta-Etxanoko Udalak ematen dituen diru-laguntzak ordenantza honetan ezarritakoaren arabera emango dira. Diru-laguntzen lerro berria agertuz gero, beste arautegi berezi bat egin beharko da, eta hori udaleko osoko bilkurak onetsiko du, kasuan kasuko oinarri arautzaile berezien bitartez; horretarako jarraituko den prozedura izango da Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ezarri duena ordenantzak onesteko. Arautegi horrek, bestalde, honako aipamenak jaso behar ditu:

- a) Diru-laguntzapeko xedearen definizioa.
- b) Onuradunek nahiz erakunde laguntzaileek bete beharreko betekizunak eta ekarri beharreko agiriak.
- c) Eskabideak aurkezteko modua eta epea.
- d) Diru-laguntza emateko prozedura, instrukzioaz eta ebazpenaz arduratuko diren organoak zehaztuta, baita emate-proposamena egingo duen kidego organoaren osaketa ere.
- e) Diru-laguntza emateko irizpide objektiboak, baita, hala denean, horien ponderazioa; gero, irizpideok betetzen diren edo ez aztertuko da, eta



irizpideak idazterakoan, azterketa hori ahalik errazen egiten duen idazkera eman beharko zaie.

- f) Diru-laguntzaren zenbateko zehatza edo hori zehazteko irizpideak.
- g) Diru-laguntza helburu zehatzari begira eman denez gero, eta jasotako funtsak modu jakinean erabili behar direnez gero, onuradunak edo, hala balegokio, erakunde laguntzaileak helburu hori bete dela edo funtsak horretara erabili direla egiaztatzeko epea eta modua; halaber, Ordenantza honen 18. artikulua arabera, zeintzuk diren egiaztapen hori egiteko balio duten agiriak.
- h) Diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzearen ondorioz ebazpenaren aldaketa ekar dezaketen inguruabarrak.
- i) Ebazpena emateko epea, 6 hilabetetik beherakoa izan behar dena, jakinarazpen-bideak, administrazio-isiltasunaren ondoreak, oinarri arautzaileen kontra jar daitezkeen errekurtsoak, zein organori jarri behar zaizkion eta halakoak jartzeko epea.
- j) Diru-laguntza ordaintzeko moduak eta epeak, ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egiteko aukera, baita, hala denean, onuradunek eskaini beharreko bermeen araubidea.
- k) Bateragarritasuna, beste diru-laguntza batzuekin, eta horren mugak.
- l) Hala denean, onuradunak eman beharreko finantzaketa, diru-laguntzapeko jardura estaltzeko.
- m) Finantzaketa gainditzen denean edo ez-betetzea gertatzen denean, jasotako funtsak itzultzeko betebeharra.
- n) Espedientearen izapidetzaz arduratzen den sailak edo Amorebieta-Etxanoko Udaleko kontu-hartzaileak informazioa eskatzen duenean, onuradunek eta erakunde laguntzaileek duten betebeharra, hori emateko.
- o) Organo eskudunak bidezko deritzen beste atalak edota aplikatu beharreko arautegiak ezartzen dituenak.

## **11. artikulua.- Kreditu egokia eta nahikoa egotea**

1. – Udalak urtero erabiliko ditu aurrekontuaren partida batzuk diru-laguntzak emateko; hortaz, aurrekontuetan estaldura egokia eta nahikoa duten diru-laguntzak bakarrik eman daitezke. Halaber, urteanitzeko diru-laguntzak eman ahal izango dira, konpromiso-kreditu egokiak eta nahikoak daudenean.

Organo eskudunak gastua onetsi behar du, aplikatu beharreko legeria, udalaren erregelamendu organiko eta Aurrekontua Betearazteko Oinarriak kontuan izanda; betiere, eduki ekonomikoa duten administrazio-egintzak alde aurretik fiskalizatu behar dira, legeek ezarritakoaren arabera.

2.- Elkarlehia bidezko pilotze-sistemaren bitartez ematen diren diru-laguntzen kasuan, deialdi bakoitzak zehaztuko du zein den deialdi horretan erabil daitezkeen aurrekontu-kredituaren gehieneko kopurua.

## **LAUGARREN KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURAK**

### **12. artikulua.- Diru-laguntzak emateko prozedura-motak.**



Amorebieta Etxanoko Udala

1. Amorebieta-Etxanoko Udalak diru-laguntzak ematen dituenean, elkarlehia bidezko pilatze-sistema erabiliko du prozedura orokor gisa; halakoetan, diru-laguntza emango da, aurkeztutako eskabideak elkarrekin alderatu eta gero.

Alderatze hori egiteko, oinarri arautzaile hauetan eta diru-laguntzaren deialdian ezarritako balorazio-irizpideak izango dira kontuan, eta irizpideok ezartzeko oinarria ezin izan daiteke eskuzabaltasun hutsa. Oinarri arautzaile bereziek bestelako balorazio-irizpideak ezar ditzakete.

Irizpide horiek aplikatu ostean baloraziorik handiena erdietsi duten diru-laguntzen artean egingo da adjudikazioa, deialdian zehaztutako muga kontuan hartuta, eta, betiere, xedatzeko moduko kredituaren barruan.

2.- Hurrengo kasuetan, aldiz, diru-laguntzak zuzenean eman daitezke:

- a) Amorebieta-Etxanoko Udalaren Aurrekontu Orokorrean beren beregi izendatu direnean.
- b) Legeak ezarri duenean ematea edo zenbatekoa.
- c) Salbuespenez, deialdi publikoaren bitartez egin ezin direnean, herri-intereseko arrazoiak edota gizarte-, ekonomia- nahiz giza-arrazoiak azaltzen direlako.

Diru-laguntzak zuzenean emateko, organo eskudunaren erabakia edo kasuan kasuko hitzarmena behar da.

### **13. artikulua.- Elkarlehia bidezko pilatze-prozedura**

Elkarlehia bidezko pilatze-prozedura honetara gauzatuko da:

#### **1. Prozedura hastea**

##### *a. Deialdia*

Prozedura ofizioz hasiko da, kasuan kasuko deialdi publikoa onesten denean.

Deialdi publikoa udaleko zerbitzu teknikoek egingo dute, eta aipatu arauak xedatu bezala, diru-laguntza emateko organo eskudunak onetsiko du.

Deialdian ondokoa jaso behar da gutxienez:

- Hala balegokio, oinarri arautzaileak biltzen dituen xedapenaren aipamena, eta xedapen hori argitaratzen duen aldizkari ofizialarena, salbu eta zeharo bereziak izateagatik, oinarriak deialdian bertan agerrarazi direnean.
- Diru-laguntza aurrekontuko zein kredituri egotzi, eta kreditu horiek, baita xedatzeko moduko kredituen barruan sartzen diren diru-laguntzen gehieneko kopurua ere.
- Diru-laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua.
- Diru-laguntza emateko erabili den araubidearen aipamena.
- Diru-laguntza eskatzeko betekizunak eta horiek egiaztatze modua.
- Prozeduraren instrukzioaz eta ebazpenaz arduratuko diren organo eskudunen aipamena.



Amorebieta Etxanoko Udala

- Eskabideak aurkezteko epea.
- Ebazpena eta jakinarazpena egiteko epea.
- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioa.
- Hala denean, eskabideak berregiteko aukera.
- Ebazpenak administrazio-bidea agortzen duen edo ez, eta azken kasu horretan, zein organotan jar daitekeen gorabidezko errekurtsioa.
- Eskabideak baloratzeko irizpideak.
- Jakinarazpena edo argitaratzea egiteko bideak.

*b. Eskabideak aurkeztea (I. ERANSKINA)*

Prozedura hasitakoan, interesdunek euren eskabideak aurkeztuko dituzte kasuan kasuko deialdian ezarritako epean; eskabideetan hurrengo aipamenak agertu behar dira gutxienez:

- Eskatzailearen identifikazioa eta, hala denean, erakundearen ordezkari-tza egiaztatzeko agiriak. Pertsona fisikoek NANaren kopia aurkeztu behar dute. Pertsona juridikoek, berriz, ondokoa ekarriko dute:
  - a. IFZ.
  - b. Euren organo eta ordezkariak izendatzeko erabakia, kasuan kasuko erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta, halakorik izanez gero.
  - c. Inskribatutako estatutuak.
  - d. Ordezkariaren NANA, diru-laguntzaren esparruan berori identifikatu ahal izateko.
- Deialdian onuradun izateko ezarri diren betekizunak betetzen direla egiaztatzeko agiriak.
- Erakundearen lege-ordezkariak egindako zinpeko adierazpena, onuradun izateko bateraezintasunik ez duela azalduz, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3. artikuluek ezarritakoaren arabera. (II. ERANSKINA)
- Diru-laguntza jasotzea ahalbidetzen duen proiektuari buruzko txosten azaltzailea.
- Diru-laguntzapeko jarduera edo proiektuaren kostua bidezko faktura eta agiriak (diru-laguntzaren ordainketa aurreratuak onartzen badira, nahikoa izango da jardueraren aurrekontu xehea eta banakatua, gastua eta horren finantzaketa-iturria ezarrita. III. ERANSKINA)
- Tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete direla egiaztatzeko agiriak, ordenantza honen 7. artikuluen e) letran ezarritakoarekin bat etorritik. Udalak berak egiaztatuko du onuradunak Amorebieta-Etxanoko Udal Ogasunari zor dion guztia ordaindu diola. (IV. ERANSKINA)
- Hala denean, onuradunak helburu berdinari begira lortu dituen beste diru-laguntza edo laguntzei buruzko adierazpena; halakoak etor daitezke administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatuetatik, eta nazioko zein nazioartekoetatik. (V. ERANSKINA)
- Obra egiteko kostuaren kasuan diru-laguntzapeko gastuaren zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa bada, eta ekipo-ondasunak hornitzen direnean edota aholkularitza edo laguntza teknikorako enpresek zerbitzuak ematen dituztenean zenbateko hori 12.000 eurotik gorakoa bada, onuradunak gutxienez hiru hornitzaile desberdinen eskaintzak aurkeztu behar ditu,



Amorebieta Etxanoko Udala

kontratuaren xedea berdina izanik. Obretan, berebat, eskaintzekin batera obren Txosten Balioetsia, edo, hala denean, Obra Proiektua aurkeztu behar da, teknikari eskudunak sinatuta. Eskaintza horiek eskabidean agerraraziko dira, eta eragingarritasun- nahiz ekonomia-irizpideak gogoan izanda, bat aukeratuko da; ekonomiaren ikuspegitik proposamenik onena aukeratu ez bada, erabaki horren arrazoiak azaltzeko txostena egin behar da.

## 2.- Instrukzioa:

Interesdunek euren eskabideak aurkeztu dituztenean, hain zuzen ere, ordenantza honetan, oinarri zehatzetan, kasuan kasuko deialdian edo legeria orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik, eta eskatzaileek onuradun izateko betekizunak betetzen dituztela aztertu ondoren, organo eskudunak prozeduraren instrukzioari ekingo dio; organo hori deialdi bakoitzean izendatuko da, eta ebazpen-proposamenaren inguruko datu oro egiaztatzeko jarduna burutu ahal izango du. Instrukzio-jardun horren eretzean, txostenak eska daitezke, eskabideak ebatzi eta ebaluatzeko.

Eskabideak aztertu ondoren, kidego organoak txostena egingo du; oinarri arautzaileek kontrakoa xedatu ezean, kidego organo hori osatuko dute saileko teknikariek, eta, hala balegokio, zerbitzu juridikoetakoek, baita kontu-hartzaileak edo horrek izendatutako eskuordeak ere; organo emaileak lehendakari moduan jardungo du.

Deskribatutako jarduna gauzatutakoan, ebazpen-proposamen arrazoitua egin eta organo emaileari bidaliko zaio.

## 3. Ebazpena

Ebazpen-proposamena bidali ondoren, eta proposamen horretan eskatzaileek azaldutako egitate edo agiriak bakarrik izan direnean kontuan, ebazpena organo emaileak erabakiko du, berori arrazoituz.

Eskatzaileek azaldutakoez gain, beste inguruabar batzuk ere izan badira kontuan, instrukzio-organok eskatzaileei jakinaraziko die ebazpen-proposamena; horiek 10 eguneko epea izango dute alegazioak azaltzeko, eta gero, behin betiko ebazpena emango da.

Diru-laguntza emateari buruzko ebazpenak hauxe aipatu behar du:

- a) Diru-laguntza jasotzen duten eskatzaileak.
- b) Beste eskabideen gaineko gaitziritzi arrazoitua.
- c) Diru-laguntza emateko erabili izan den xedapena.
- d) Ordainketaren zenbatekoa, modua eta epeak.
- e) Jar daitezkeen errekurtsioak, zein organori aurkeztu behar zaizkion eta horretarako epeak.



Amorebieta Etxanoko Udala

Edozein kasutan ere, diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatu badira, edota beste erakunde publiko zein pribatuek aldi berean emandako laguntzen edo diru-laguntzen ondorioz gehiegizko finantzaketa gertatu bada, emate-ebazpena aldatu ahal izango da, eta, hala denean, jasotako diru-laguntza itzuli beharko da.

Ebazpena emandakoan, onuradunak eska dezake horren edukia aldatzea, ondoko kasuetan:

- 1.- Onuradun izateko betekizunak modu nabarian aldatu direnean.
- 2.- Diru-laguntza emateko inguruabar objektiboak aldatu direnean.
- 3.- Onuradunek diru-laguntza jasotzeko aurkeztu dituzten proiektuak aldatu direnean.

Ebazpena aldatzeko eskabidea aurkeztu behar da, jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen.

#### 4. Jakinarazpena

Ebazpena eman eta gero, onuradunei jakinaraziko zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 58. artikulua eta ondorengoek ezarritakoarekin bat etorritik.

#### 5. Argitaratzea

Amorebieta-Etxanoko Udalak diru-laguntzak ematen dituenean, emate hori udaleko iragarki-oholean azaldu behar da, baina horrez landara, ebazpenaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eduki osoa non ikus daitekeen aipatuz, baita udalaren web-orrian ere.

Diru-laguntza egutegiko hiruhilekoaren osteko hilabetean argitaratu behar da, epealdi horretan emandako diru-laguntza guztiak zerrendatuz, emate-prozedura eta emate hori gauzatzeko modua edozein izanda ere, salbu eta legeak debekatu duenean argitaratze hori.

Ez da beharrezkoa diru-laguntza Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea hurrengo kasuetan:

- Emandako diru-laguntzak banan-banan 3.000,00 €tik beherakoak direnean.

-Diru-laguntzaren xedea ikusita, onuradunaren datuak argitaratzeak kalte egin ahal dionean pertsona fisikoaren ohore eta intimitate pertsonalari edo familiakoari.

Ebazpenera bildu direnean 3.000,00 €ko zenbatekoa gainditzen duten eta gainditzen ez duten diru-laguntzak, argitaratzea egiten denean zehaztuko dira, batetik, 3.000,00 €tik gorako diru-laguntzen datuak banan-banan, eta, bestetik, diru-laguntzari buruzko arauen aginduz non edo nola argitaratu diren beste onuradunen datuak.

Argitalpenak haxe aipatu behar du:



Amorebieta Etxanoko Udala

- a) Deialdia eta diru-laguntzen identifikazioa.
- b) Diru-laguntza horiek zein programa eta kredituri egozten zaizkion.
- c) Finantzaketa Europar Batasunaren funtsen kontura egin den edo ez, eta, hala denean, finantzaketa-portzentajea.
- d) Onuradunaren edo sozietatearen izena, IFZ, diru-laguntzaren helburua edo helburuak, hala denean, laguntzapeko programa edo proiektuak zehaztuz, baita emandako zenbatekoa ere. Urteanitzeko diru-laguntzen kasuan, emandako zenbateko osoa, urteetan banatuta.

#### **14. artikulua.- Zuzeneko emate-prozedura, diru-laguntzak beren beregi izendatu direnean Amorebieta-Etxanoko Udalaren aurrekontuan**

Halakoetan, diru-laguntzaren xedea, onuraduna eta aurrekontu-zuzkidura esanbidez zehazten dira udalaren aurrekontuaren gastu-orrian.

Diru-laguntza horien kasuan, emate-prozedurak honako fase hauek izango ditu:

##### 1. Hasiera

Prozedura hasten da onuradunaren baldintzak dituen interesdunak diru-laguntza emateko eskabidea aurkezten duenean. Eskabideak ordenantza honen 13. artikulua 1. paragrafoko b)letran aipatu betekizunak izan behar ditu. Diru-laguntza zein aurrekontutan jaso, eta horri dagokion ekitaldiko urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar da eskabidea.

##### 2. Ebazpena

Eskatzaileak onuradun izateko betekizunak betetzen dituela ziurtatu ostean, organo eskudunak ebatziko du diru-laguntza ematen den ala ez, eta ebazpen horren oinarri izango diren datuak aztertzeko, beharrezko deritzon jarduna buru dezake.

Emate-prozedura amaituko da emate-erabaki batekin edo udalaren eta onuradunaren artean sinatutako hitzarmenarekin, eta horien edukiak, gutxienez, ondokoa jaso behar du:

- a) Diru-laguntzaren xedea eta onuradunak.
- b) Zenbatekoa, eta gastua zein aurrekontu-kredituri egozten zaion.
- c) Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin.
- d) Diru-laguntza ordaintzeko epeak eta modua.
- e) Diru-laguntzapeko helburua betetzen dela eta jasotako funtsak behar bezala erabiltzen direla egiaztatzeko epea eta modua.

Ebazpena emateko epea izango da, gehienez, bi hilabetekoa, eskabidea udalean aurkeztu zenetik zenbatzen hasita.

Ez da beharrezkoa diru-laguntza mota honen publizitaterik egitea.



Amorebieta Etxanoko Udala

### **15. artikulua.- Zuzeneko emate-prozedura, lege lerruneko arauak ezarri duenean diru-laguntzaren ematea edo zenbatekoa.**

Lege lerruneko arauak ezarriko du noiz eman daitezkeen halakoak, eta arau hori aplikatuko zaie diru-laguntza horiei.

Laguntza horiek emateko, emate-erabakia edo -hitzarmena behar da, baldin eta arautegiak hori ezarri badu; kasu horretan, hitzarmenaren edukia bat etorri behar da aurreko artikuluan aipatu diru-laguntza izendatuen 2. idatz-zatiak ezartzen duenarekin.

Publizitateaz denaz bezainbatean, ordenantza honen 13.5. artikulua ezarritakoa izan behar da kontuan. Lege lerruneko arauak agintzen duenean diru-laguntza onuradun zehatzari eta zenbateko jakin batean ematea, ez da beharrezkoa izango Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ezer argitaratzea.

Aplikatu beharreko arautegiak besterik xedatu ezean, ematearen gaineko eskumena duen organoak onetsiko du diru-laguntza mota honen arauketa berezia.

### **16. artikulua.- Zuzeneko emate-prozedura, deialdi publikoa egitea zaila denean, herri-intereseko arrazoiak edota gizarte-, ekonomia- zein giza-arrazoiak edo behar bezala egiaztatu diren beste arrazoi batzuk azaltzen direlako.**

Amorebieta-Etxanoko udalak halakoak eman ditzake herri-intereseko arrazoiak edota gizarte-, ekonomia- nahiz giza-arrazoiak ondorioz inguruabar bereziak gertatzen direnean eta pilatze publikoa zail bihurtzen denean; jakina, inguruabar horiek administrazio-espeditentean egiaztatu behar dira, horrexetarako egiten den txosten baten bitartez.

Diru-laguntza mota horren xedea hauxe izan daiteke:

- Izadiko hondamendien edo gizakiak eragindako beste ezbeharren ondorioak leuntzea. Onuradunak izango dira pertsona fisiko zein juridiko ukituak. Ematearen gaineko eskumena duen organoaren erabakiak zehaztuko du noiz eskatu eta eman daitezkeen halakoak.

-Amorebieta-Etxanoko monumentu- zein kultura-ondarea artatzea, kontuan izanda ondare hori, batik bat, eraikin erlijiosoek osatzen dutela. Onuradunak izango dira ondare horren jabeak.

Emate-prozedurari helduta, hurrengo urratsak emango dira:

#### 1. Hasiera

Prozedura hasiko da interesdunak hala eskatuta; horretarako, ordenantza honen 13.1 b) artikuluko betekizunak dituen eskabidea aurkeztu behar da.

Lehenik, Amorebieta-Etxanoko udalak eskabide hori berrikusiko du; hurrenik, eskatzaileak onuradun izateko baldintzak betetzen dituela eta kontratuaren xedea artikulua honetako bigarren lerrokadan aipatzen dela edota korporazioko osoko bilkurak onetsitakoa dela ziurtatuko du; eta, azkenik, gerta daitezkeen herri-intereseko edo ekonomia-, gizarte-, zein giza-inguruabar bereziak aztertuko ditu, edota elkarlehia





Amorebieta Etxanoko Udala

bidezko pilatze-prozedura erabiltzeko zailtasuna begiratuko du. Diru-laguntza kudeatzen duen organoak, alegia, gaiaren ondorioz honen gaineko eskumena duenak, txostena gehitu behar dio hasitako administrazio-espeditari, ondokoa azalduz: batetik, diru-laguntza horren berezitasuna, eta, bestetik, herri-intereseko nahiz gizarte-, ekonomia- zein giza-arrazoiak, deialdi publikoaren zailtasuna dakarten arrazoiak, hain zuzen.

## 2. Ebazpena

Ematearen gaineko eskumena duen organoak emate horren berezitasuna eta aipatu arrazoiak edo deialdi publikoaren zailtasuna azaldu behar ditu emate-erabakian, baita, hala denean, horren osteko hitzarmenean ere.

## 3. Jakinarazpena eta publizitatea

Ebazpena eman eta gero, onuradunei jakinaraziko zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 58. artikulua eta ondorengoek ezarritakoarekin bat etorriz. Publizitateari dagokionez, ordenantza honen 13.5. artikulua ezarritakoa izan behar da kontuan, eta diru-laguntza egiaztatzearen inguruan, berriz, 18. artikuluan xedatutakoa.

Eskatutako diru-laguntzaren xedea ez bada agertzen artikulua honetan aipatutakoen artean, udalak horren izaera berezia edo deialdi publikoa egiteko zailtasuna aztertu behar du; jarraian, korporazioaren osoko bilkurak zehaztuko ditu diru-laguntzapeko xedea eta onuraduna, eta artikulua honetan araututako emate-prozedura aplikatuko du.

# **BOSGARREN KAPITULUA EMATE-ERABAKIAREN OSTEKO IZAPIDEAK**

## **17. artikulua.- Gastu-konpromisoa eta diru-laguntzaren ordainketa**

Diru-laguntza emateak berarekin dakar gastu-konpromisoa, baina dirua ez da ordainduko diru-laguntzapeko xedea gauzatu dela egiaztatu arte.

Hala ere, Amorebieta-Etxanoko udalak deialdian edo emate-erabakian hurrengoak ezar dezake, azken puntu horren salbuespen moduan, diru-laguntzaren izaerak hori bidezkotzen duenean:

- a) Konturako ordainketak: halakoetan, ordainketak zatika egin daitezke, aurkeztutako egiaztagiraren zenbatekoa kontuan hartuta.
- b) Aurreratutako ordainketak, finantzaketa-bide gisa.

Zernahi gisaz, azken bi kasuetan onuradunak eskatu behar du aurrerakina, egin beharreko jardura ororen aurrekontu xehea ekarrita. Edonondik begira dakiola ere, xedea gauzatu dela egiaztatzeko betebeharrak bere horretan dirauenez gero, konturako ordainketak egin ahala egiaztagirak aurkeztu beharko dira, ordainketa hori



Amorebieta Etxanoko Udala

edo aurreratua onartzen duen erabakiak ezarritako epean. Kasu horietan ez da bermerik eskatzen. Onuradunei igorritako funtsen ondorioz sortzen diren finantza-etekinek ez dute handituko diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntza ez da ordainduko honako kasuetan:

- a) Onuradunak ez dituenean ordaindu tributu-zorrak.
- b) Onuradunak ez dituenean ordaindu Gizarte Segurantzaren zorrak.
- c) Onuraduna zordun denean, itzultzea agintzen duen ebazpenaren ondorioz.
- d) Aurreko diru-laguntzaren bat egiaztatu ez duenean epean.

### **18. artikulua—Diru-laguntza egiaztatzea**

Amorebieta-Etxanoko udalak emandako diru-laguntzen helburuak erdietsi direla eta ezarritako betekizunak bete direla egiaztatzeko, orokorrean, GASTUA EGIAZTATZEKO KONTUA egiten da, eta GASTUEN EGIAZTAGIRIAK ekartzen dira. Egiaztatze hori, berebat, moduluen bitartez edo kontabilitate-agiriak aurkeztuta egin daiteke, baldin eta oinarri arautzaile zehatzek hori ahalbidetzen badute.

Guztiarekin, diru-laguntza eman denean jasotzailea egoera berezi batean dagoelako, nahikoa izango da egoera hori ematearen aurretik gertatu dela egiaztatzea, eta horretarako zuzenbidean onetsitako edozein bide erabil daiteke; betiere, egoera hori izan badela ziurtatzeko kontrolak egin daitezke.

#### Gastua egiaztatzeko kontua, gastuen egiaztagiria ekartzen direnean.

Onuradunak hurrengo egiaztagiria ekarri behar ditu:

1. Diru-laguntza emateko baldintzak bete direla egiaztatzen duen txostena, egin diren jarduerak eta erdietsi diren emaitzak aipatuz.
2. Diru-laguntzapeko jarduera osoak eragindako gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta agiria zehaztuta, baita zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala balegokio, ordainketa-data ere. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera eman denean, gertatu diren aldaketak.
3. Diru-laguntzapeko jarduerak jaso dituen bestelako sarrera edo laguntzen zerrenda xehea, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita.
4. DLOren 31.3. artikulua aginduz, onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.
5. Hala denean, itzultzearen ordainketa-agiria, aplikatu gabeko gairikinen kasuan, baita horiek eragindako korrituak ere.
6. Merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio berdina duten faktura zein agiriak, edota administrazio-eragingarritasuna dutenak; halakoak sartu behar dira a) idatz-zatian aipatu zerrendan. Agiriok jatorrizkoak zein kopia egiaztatuak izan



daitezke, onuradunaren izenean luzatu direnak, legeak zehaztutakoaren arabera; agiri horiek egindako jardueren ingurukoak izan behar dira, Amorebieta-Etxanoko udalak emandako diru-laguntzaren zenbatekoraino. Emandako diru-laguntza gainditzen duen zenbatekoari dagokionez, eta diru-laguntzapeko proiektuaren zenbatekoa osatu arte, fakturen fotokopia ekarri behar da.

- i. Ondore horietarako, fakturek gutxienez hauxe jaso behar dute, indarreko legeriaren arabera:
- ii. Faktura-zenbakia eta, hala balegokio, seriea.
- iii. Jaulkipen-data.
- iv. Faktura luzatzen duen enpresaburu edo enpresaren datuak:
  1. Izen-abizenak edo sozietatearen izena.
  2. IFZ edo IFK
  3. Egoitza, posta kodea, udalerrria eta probintzia.
- v. Jasotzailearen edo faktura ordaintzen duen pertsonaren datuak:
  1. Izen-abizenak edo sozietatearen izena.
  2. IFZ edo IFK
  3. Egoitza, posta kodea, udalerrria eta probintzia.
- vi. Eragiketaren deskripzioa.
- vii. Hala denean, aplikatu beharreko BEZ-tasa, zerga horren oinarria eta kuota banakatuz, edota salbuespenaren egiaztatzea.
- viii. Eragiketaren data, faktura beste egun batean egin bazen.
- ix. Faktura luzatu duenaren sinadura edo zigilua.
- x. Faktura ordaindu izanaren aipamena.

1496/2003 Errege Dekretuak onetsitako Fakturazio Erregelamenduaren 4. artikulua zenbait eragiketa deskribatzen ditu, eta halakoetan, faktura luzatzeko betebeharra betetzeko, txartela eman daiteke, fakturaren zenbatekoa 3.000 €tik beherakoa denean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne.

7. Langile-gastuak baitaratzen dituzten diru-laguntzetan, kasuan kasuko nominak edo alokairu-ordainagiriak ekarri behar dira, eta agiriotan argiro agertu behar dira izena eta bi abizen, NANA, zein hilekoak diren, zenbateko gordina, kasuan kasuko deskontuak eta zenbateko garbia, baita Gizarte Segurantzako kotizazio-buletinak ere. Buletin berdinerara pilatzen badira diru-laguntzapeko erakundearen langileak eta bestelako helburua duen erakundearenak, atzealdean zehaztuko da langile ukituari dagokion kopurua, enpresaburuaren eta langilearen kuotak bereiziz. Gastuak ordaindu behar direnean, ondokoa egiaztatzeko agiriak gehituko dira: nominak eta Gizarte Segurantzako kuotak ordaindu direla, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoriozko zenbatekoak sartu direla.
8. Sariei, joan-etorriei eta ostatu-gastuei dagokienez, PFEZren arautegiak xedatzen du hainbat kategoriatan halakoak salbuesita daudela, zenbateko bateraino; bada, ezin da diru-laguntzarik jaso baliobesteko kategorian zenbateko horiek gainditzen dituzten sari, joan-etorri nahiz ostatu-gastuetan. Gastuok egiaztatzeko, arduradun batek sinatutako fakturak nahiz ordainagiri



Amorebieta Etxanoko Udala

edo agiri egokiak ekarri behar dira, jasotako sarien zenbatekoan; agiritan argi eta garbi agertu behar da jasotzailearen izena eta kontzeptua.

9. Beste alde batetik, errentamendu-kontratuaz denaz bezainbatean, kontratuaren kopia egiaztatua eta errentamendu-zenbatekoen ordainagiriak ekarriko dira.

Aurkeztu diren jatorrizko agirietan zigilua jarriko da, hauxe aipatuz: zein diru-laguntzari begira aurkeztu diren, egiaztagirien zenbatekoa diru-laguntza osoari edo zati bati egozten zaion, eta, azken kasu horretan, diru-laguntzak ukitutako zenbateko zehatza.

Diru-laguntza egiaztatzeko eskumena duen organoak atzeman duenean ongitzeko moduko akatsak daudela onuradunak aurkeztutako egiaztagirian, horren berri emango dio, eta onuradunak hamar eguneko epea izango du, akatsok zuzentzeko.

#### **19. artikulua.- Egiaztatze-epea luzatzea.**

1.- Oinarri arautzaileek kontrakoa ezarri ezean, organo emaileak luza dezake egiaztagiriak aurkezteko epea, baldin eta horren erdia gainditzen ez bada, eta ez bazaie kalterik egiten hirugarrenen eskubideei.

2.- Epea luzatzeko prozedura has daiteke ofizioz edo onuradunak hala eskatuta. Egiaztatze-epea luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie, eta ezingo da errekurtsorik jarri horren kontra.

3.- Betiere, epeen gehieneko luzapena hurrengo kasuetan aplikatuko da:

-Izapideak kontsuletxeen bitartez edo atzerrian gauzatu direnean.

-Izapideak Amorebieta-Etxanon egin arren, besteren bat atzerrian gauzatu behar denean, edo prozeduran esku hartzen duen interesdunen batek egoitza Espainiatik kanpo duenean.

4.- Luzapen-eskabidea eta -erabakia kasuan kasuko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar dira.

5.- Luzapen-epea igarotakoan, organo emaileak onuradunari eskatuko dio egiaztagiria aurkezteko 15 egun baliodunetan. Epe horretan ez bada egiaztagiririk aurkezten, jasotako zenbatekoak itzuli ez ezik, ordenantza honek eta DLOk ezarritako erantzukizunak sortuko dira.

### **SEIGARREN KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA**

#### **20. artikulua.- Itzultze-kasuak**

Diru-laguntza ematean Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 62 eta 63. artikuluetara bildutako deuseztasun- zein deuseztakortasun-akatsen bat gertatzen denean, jasotako kopuruak gehi berandutza-korrituak itzuli behar dira, baina baita hurrengo kasuetan ere:



Amorebieta Etxanoko Udala

- a) Diru-laguntza jasotzeko, zenbait betekizun faltsutu direnean edota diru-laguntza jasotzea oztopatuko luketenak ezkutatu direnean.
- b) Diru-laguntza ematea ekarri duen helburua, jarduera nahiz proiektua oso-osorik edo zati batean bete ez denean, edota jokabidea gauzatu ez denean. Ez-betetzea zatitakoa izan arren ia dena bete denean, itzuli beharreko kopurua ez-betetzearen arabera izango da.
- c) Egiaztatze-betebeharra bete ez denean edo behar beste bete ez denean, diru-laguntzari buruzko arauak kontuan hartuta.
- d) Egiaztatze-jardunari edo finantzaketa-kontrolari aurre edo uko egitearen ondorioz, halakoak ez egiteko aitzakiak eta trabak jartzearen ondorioz, edota kontabilitate-, nahiz erregistro-betebeharrak eta agiriak gordetzeko betebeharrak ez betetzeagatik, ezinezkoa izan denean haxe ziurtatzea: jasotako funtsen erabilera, helburuaren betepena, diru-laguntzapeko jardueren izatea eta erregularatasuna, edota helburu berberak bestelako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideak jaso izana, edozein Administrazio, erakunde publiko zein pribatuk, nazioak, Europar Batasunekoak zein nazioartekoak emanda.
- e) Xedearen benetako kostua kontuan izanda, gehiegizko finantzaketa jaso denean; halakoetan, soberakin hori itzuli beharko da.
- f) Onuradunei jarritako betebeharrak eta diru-laguntza jasotzearen ondorioz hartutako konpromisoak betetzen ez direnean, baldin eta diru-laguntza jasotzea ekarri duten helburuak erdiesteari, jarduerak gauzateari, proiektua betearazteari edo jokabidea egiteari buruzkoak badira, edo, zehatzago esanda, horiek guztiak egiteko moduari eta epeari buruzkoak badira.
- g) Arauetan ezarritako beste kasuetan.

## **21. artikulua.- Itzultze-espeditzea**

Itzuli beharreko kopurua Zuzenbide publikoko sarreratzat hartzen denez gero, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua aplikatu behar da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa, baita Amorebieta-Etxanoko Udalaren Kudeaketa, Zerga-bilketa eta Ikuskapen Ordenantza ere.

Nondik nahi begira dakiola, prozeduraren izapideak gauzaten direnean, onuradunaren zenbait eskubide bermatu behar dira, hain zuzen ere, berak esan beharrekoa entzungo da, eta bere jarduera defendatzeko alegazio egokiak egin ahal izango ditu.

Diru-laguntza eman zuen organoak ebatziko du itzulketa; ebazpenean azalduko du zergatik eskatzen den itzultze hori, zenbatekoa den eta zein den borondatezko ordainketa egiteko epea, epe horretan egiten ez bada premiamendu-bidea hasiko dela ohartaraziz.

## **ZAZPIGARREN KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZAK KONTROLATZEKO ARAUBIDEA**

### **22. artikulua.- Kontrola egiteko eskumena eta helburua**



Amorebieta Etxanoko Udala

1.- Amorebieta-Etxanoko udalak ematen dituen diru-laguntzen gaineko kontu-hartzea eta finantzaketa-kontrola udal kontu-hartzailetzaren bitartez gauzatuko da, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari dagozkion eginkizunei kalterik egin gabe.

2.- Ordenantza honetan ezarritako arauketaren arabera, eginkizun kontu-hartzailearen helburua da udalak emandako diru-laguntzak kontrolatzea, indarreko legeria betetzen dela ziurtatzeko. Helburu hori erdiesteko, hauxe egiten da:

- Aldez aurretik fiskalizatzen da diru-laguntza emateko agiria edo espedientea.
- Ordainketa-aginduaren gaineko esku-hartze formala gauzatzen da.
- Ordainketaren gaineko esku-hartzea burutzen da.
- Emandako diruaren aplikazio edo erabilerari buruzko esku-hartzea egiten da.

3. – Finantzaketa-kontrol horren bitartez hauxe ziurtatu nahi da:

- Onuradunak behar bezala jaso duela diru-laguntza.
- Onuradunek eta erakunde laguntzaileek euren betebeharrak bete dituztela, diru-laguntza kudeatu eta aplikatzerakoan.
- Onuradunek eta erakunde laguntzaileek behar bezala egiaztatu dutela diru-laguntza.
- Onuradunek eta erakunde laguntzaileek aurkeztutako egiaztagiri horrekin bat etorritik, diru-laguntzak finantzatutako eragiketak benetakoak eta erregularrak direla.
- Diru-laguntzapeko jarduerak behar bezala finantzatu direla.
- Onuradunek eta erakunde laguntzaileek Administrazioari ez diotela eman zenbait egitate, inguruabar eta egoeren berri, eta, horren ondorioz, gerta daitekeela diru-laguntzapeko jardueren finantzaketa ukitzea, diru-laguntza behar bezala ez lortzea, erabiltzea, gozatzea edo egiaztatzea, edota finantzatutako jarduerak benetakoak eta erregularrak ez izatea.

### **23. artikulua.- Finantzaketa-kontrola gauzatzeko prozedura**

Finantzaketa-kontrola gauzatzeko, Amorebieta-Etxanoko udalak auditoretzak edo bestelako kontrol-teknikak buru ditzake, Herri Administrazioaren auditoretzari buruzko arauetan ezarritakoaren arabera.

Jarduna hasiko da onuradunei eta erakunde laguntzaileei jakinarazpena egiten zaienean, kontrolaren atal guztiak aipatuz. Onuradunen eta, hala denean, erakunde laguntzaileen gain gauzatu beharreko finantzaketa-kontrolaren jarduna gehienez 12 hilabeteko epean egin behar da, hasierari buruzko jakinarazpena egin zaienetik zenbatzen hasita.

Onuradunen eta, hala denean, erakunde laguntzaileen gain gauzatu beharreko finantzaketa-kontrolaren jarduna amaituko da kasuan kasuko txostenak egiten direnean; txosten horietan adieraziko dira, batetik, egitateak eta, bestetik, horiek ekarritako ondorioak. Hasteko, behin-behineko txostena bidaliko zaie erakunde laguntzaile eta onuradunei, 15 eguneko epean alegazioak egin ditzaten. Gero, behin



Amorebieta Etxanoko Udala

betiko txostena bidaliko zaio diru-laguntza eman zuen organoari, eta kontu-hartzaitzaren txostenak badio diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar dela, organo kudeatzaileak hilabeteko epean hasiera emango dio itzultze-espeditenteari, txosten horretan oinarrituta.

#### **24. artikulua.- Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.**

Diru-laguntzaren onuradunak haxe adieraz dezake egiaztagirian: diru-laguntza ematerakoan kontuan hartu ziren baldintzak aldatu egin direla laguntza horren izaera eta helburuak oinarrian ukitu gabe, aldaketa horiek aldi berean ebazpena aldatzea ekar dezaketela eta ez dela eskatu aurretiazko administrazio-baimenik aldaketa horiek onesteko; kasu horretan, diru-laguntza eman duen organoak onar dezake egiaztagiri hori, baldin eta onarpen horren ondorioz ez bazaie kalterik egiten hirugarrenen eskubideei.

### **ZORTZIGARREN KAPITULUA: ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

#### **25. artikulua.- Arau-haustek eta zehapenak.-**

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluak (52. artikulua eta ondorengoek) ezarritakoa izan behar da gogoan, baita gai hori arautzen duen gainerako legeriak xedatutakoa ere.

#### **26. artikulua.- Prozedura**

Diru-laguntzen esparruan zehapenak jartzeko, administrazio-espeditentea gauzatu behar da. Espediente horretan, interesdunak esan beharrekoa entzungo da, erabakia hartu aurretik. Izapidetzari helduta, otsailaren 20ko 2/1998 Legea aplikatuko da, Euskal Herriko Herri Administrazioen Ahalgo Zehatzaileari buruzkoa, baita horren garapen-arauak eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. tituluko II. kapituluan xedatutakoa ere.

Edonondik begira dakiola, kobratzeari dagokionez, ulertzen da zehapena Zuzenbide publikoko sarrera dela, eta horrek esan nahi du abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua aplikatu behar dela, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa, baita Amorebieta-Etxanoko Udalaren Kudeaketa, Zerga-bilketa eta Ikuskapen Ordenantza ere.

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1. n artikulua ezarritakoaren arabera (eskuordetza-kasuak kenduta), udaleko alkateak ofizioz hasiko du prozedura, organo emaileak edo erakunde laguntzaileak burututako egiaztatze-jardunaren ondorioz, edota lege honetan ezarritako kontrol-jardueren ondorioz.

Zehapenak jartzeko erabakiek administrazio-bidea agortzen dute.



Amorebieta Etxanoko Udala

## **II. TITULUA.- GIZARTE-ONGIZATE, KULTURA, KIROL, HEZKUNTZA ETA EUSKARA ARLOETAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO XEDAPENAK**

### **LEHENENGO KAPITULUA: GIZARTE-ONGIZATEAREN ARLOKO DIRU- LAGUNTZAK**

ATAL BAKARRA.- GIZARTE-INTERESEKO EKIMEN NAHIZ JARDUERAK  
FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

27. artikulua—Diru-laguntzaren xedea

1.- Diru-laguntzen xedea da gizarte-intereseko ekimen nahiz jarduerak finantzatzea, hurrengo helburuak erdiesteko:

- Zenbait elkartek antolatutako jardueren gastuak ordaintzea, jarduera horien helburua denean aurreneurriak hartzea gizartean baztertuta dauden edo egon daitezkeen taldeei begira, talde horiei kasu egitea nahiz laguntzea, edota taldeok gizarteratzea.
- Azterketa eta ikerketak egitea.
- Zabaltze-proiektuak edo herritarrak zerbaitez jabetzeko proiektuak gauzatzea.

Aipatu proiektu horien jasotzaileak izan daitezke herritarrak orokorrean edo sektore bereziak (haurrak, familia, emakumezkoak, txiroak, adinekoak, elbarriak, ezgaitasuna dakarren gaixotasun bat duten pertsonak, drogazaleak, etorkinak, etab.).

2.- Diru-laguntza emateko, elkarlehia bidezko pilotze-prozedura erabiliko da, ordenantza honetan finkatutako parametroak eta titulu honetan ezarritako berezitasunak gogoan izanda. Taxu berean, diru-laguntza hau bateragarria da, onuradunek eska dezaketen beste batzuekin, horien ezaugarriak berdinak nahiz antzekoak direnean.

28. artikulua.- Onuradunak.

1.- Onuraduna izango da, aurreko puntuan aipatu jarduera sustatu edo gauzatzen duen pertsona fisiko zein juridikoa, nortasun juridikorik gabekoa barne, baldin eta gizarte-jarduerak burutu nahi baditu edo burutzen baditu, eta ordenantza honen I. tituluko irizpideei ekinez, jarduera hori interesgarria bada udalerrarentzat, Amorebieta-Etxanoko udalak eskainitakoak osatzen dituelako.

2. Ordenantza honetan ezarritako betekizunez gain, onuradunek hurrengoak ere bete behar dituzte:





Amorebieta Etxanoko Udala

- Legearen arabera eraturako eta irabazasmorik gabeko erakunde edo elkarteak izatea, erregistro egokian erregistratuta egotea, egoitza Bizkaiko lurralde historikoan izatea eta jarduerak udalerrian gauzatzea. Gizarte Segurantzako kuotak eta tributu-zorrak ordainduta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztea.
- Noizbehinka irabazasmorik gabeko talde baten banakako ordezkari moduan diharduen pertsona fisikoa izatea, talde horren egoitza udalerrian dagoenean.

#### 29. artikulua.- Balorazio-irizpideak

1.- Puntuen balioa izango da, aurrekontuan jasotako zenbateko osoari dagokiona, zati ehun.

- a) Erakundearen programa Amorebietako zenbat pertsonari heldu, eta kopuru hori (gehienez 25 puntu).
- b).- Beste erakunde batzuen finantzaketa-bideak erabiltzeko zailtasuna (gehienez 10 puntu).
- c).- Amorebieta-Etxanoko udalerraren proiektuari begira, eskatzaileak dituen baliabide ekonomikoak. (Bazkideen ekarpenak eta programa bakoitzeko egiten dituzten ordainketak. Halakoak zinpeko adierazpenaren bitartez egiaztatu behar dira). (gehienez 10 puntu)
- d).- Udalerrian garatu beharreko programa edo jardueren kopurua eta edukia (25 puntu).
- e).- Udalerrian garatu beharreko jardueren kostua (10 puntu).
- f).- Lehentasuna, beraren jardueren artean (10 puntu).
- g) Jarduera horrek duen eragina, gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatzean (gehienez 5 puntu).
- h).- Jarduera gauzatzea, bi hizkuntza ofizialak erabilita (gehienez 5 puntu).

2.- Arlo edo sail egokiak banan-banan baloratuko du irizpide bakoitza, eta, horretarako, aholkua eska diezaioke bidezko deritzen pertsona edo erakundeei.

#### 30. artikulua.- Ebazpena jakinarazteko epea.-

Diru-laguntza ematearen inguruko ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie gehienez 4 hilabeteko epean, eskabidea egin zenetik zenbatzen hasita; ebazpen horretan behar bezala azalduko dira erabakiaren arrazoiak.

#### 31. artikulua.- Egiaztatze-epea.-

Egiaztagiriak aurkezteko, onuradunek 2 hilabeteko epea izango dute, laguntzapeko jarduera amaitu denetik zenbatzen hasita, salbu eta deialdian beste epe berezi bat ezarri denean.



## **BIGARREN KAPITULUA: KULTURA ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK**

### **ATAL BAKARRA.- KULTURA EKIMEN NAHIZ JARDUERAK FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK**

#### **32. artikulua—Diru-laguntzaren xedea**

1.- Diru-laguntza honen xedea da elkarteek edo bestelako erakundeek antolatutako kultura jarduerak finantzatzea, udalerriko jaiei edo erakundearen urteko zereginari lotutako ekintzak ordainduz, alegia, erakunde eskatzailearen ohiko jardunbide-programa osatzen duten jarduerak eta bestelako kultura proiektuak, batez ere berriak direnak, finantzatzuz.

2.- Diru-laguntza emateko, elkarlehia bidezko pilotze-prozedura erabiliko da, ordenantza honetan finkatutako parametroak eta titulu honetan ezarritako berezitasunak gogoan izanda. Taxu berean, diru-laguntza hau bateragarria da, onuradunek eska dezaketen beste batzuekin, horien ezaugarriak berdinak nahiz antzekoak direnean.

#### **33. artikulua.- Onuradunak.**

1.- Onuraduna izango da, aurreko puntuan aipatu jarduera sustatu edo gauzatu duen pertsona fisiko zein juridikoa, nortasun juridikorik gabekoa barne.

2. Ordenantza honetan ezarritako betekizunez gain, onuradunek hurrengoak ere bete behar dituzte:

- Legearen arabera eraturako eta irabazasmorik gabeko erakunde edo elkarteak izatea, erregistro egokian erregistraturik egotea eta jarduerak udalerrian burutzea.
- Noizbehinka irabazasmorik gabeko talde baten banakako ordezkari moduan diharduen pertsona fisikoa izatea, talde hori udalerrian errolatu denean.

#### **34. artikulua.- Balorazio-irizpideak**

Hauexek dira balorazio-irizpideak:

a) Proposamena egin duen pertsona edo erakundeak Amorebieta-Etxanoko udalerriarekin duen lotura edo bertakotzea (gehienez 15 puntu).

b) Eskatzaileak gauzaturako jarduerari urteetan ekitea (gehienez 15 puntu).

c).- Beste erakunde batzuen finantzaketa-bideak erabiltzeko zailtasuna (gehienez 5 puntu).

d) Eskatzaileak dituen baliabide ekonomikoak (gehienez 5 puntu).



Amorebieta Etxanoko Udala

- e) Kulturaren ikusmiratik jarduerak duen kalitatea eta interesa (gehienez 10 puntu).
- f) Programak duen eragina eta eskaintzen duen laguntza, udalerraren kultura garapenari begira (gehienez 10 puntu).
- g) Jarduera edo proiektuaren berritasuna eta egokitasuna (gehienez 5 puntu).
- h) Proiektua bat etortzea, eskabidean zehaztutako helburuekin. (gehienez 5 puntu)
- i) Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa (gehienez 5 puntu).
- j) Programaren hezkuntza-errentagarritasuna, edota kultura nahiz gizarte-errentagarritasuna, etab. (gehienez 5 puntu).
- k) Erakunde eskatzaileak egin dituen ahaleginak, antolaketa, egitura eta ekonomiaren aldetik (gehienez 5 puntu).
- l) Jarduera gauzatzeko ekitaldi-kopurua (gehienez 5 puntu).
- m) Jarduera horrek duen eragina, gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatzean (gehienez 5 puntu)
- n).- Jarduera gauzatzea, bi hizkuntza ofizialak erabilita (gehienez 5 puntu)

35. artikulua.- Ebazpena jakinarazteko epea.-

Diru-laguntza ematearen inguruko ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie gehienez 4 hilabeteko epean, eskabidea egin zenetik zenbatzen hasita; ebazpen horretan behar bezala azalduko dira erabakiaren arrazoiak.

36. artikulua.- Diru-laguntza egiaztatze epea.-

Egiaztagiria aurkezteko, onuradunek 2 hilabeteko epea izango dute, laguntzapeko jarduera amaitu denetik zenbatzen hasita, salbu eta deialdian beste epe berezi bat ezarri denean.

## **BIGARREN ATALA.- UDAL IKASTETXE ETA ELKARTEEK EUSKARA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK**

37. artikulua- Diru-laguntzaren xedea

1.- Diru-laguntza honen xedea da euskara sustatzeko jarduerak antolatzen dituzten ekimenak finantzatzea, baldin eta elkarteek nahiz beste erakundeek edota udalerriko ikastetxe zein ikastolek halakoak gauzatzen badituzte, Eusko Jaurlaritzak Euskara Biziberritzeko onetsi duen Plan Nagusiaren helburu estrategikoen barruan.

2.- Diru-laguntza emateko, elkarlehia bidezko pilotze-prozedura erabiliko da, ordenantza honetan finkatutako parametroak eta titulu honetan ezarritako berezitasunak gogoan izanda. Taxu berean, diru-laguntza hau bateragarria da,



Amorebieta Etxanoko Udala

onuradunek eska dezaketen beste batzuekin, horien ezaugarriak berdinak nahiz antzekoak direnean.

### 38. artikulua.- Onuradunak.

1.- Onuraduna izango da, aurreko puntuan aipatu jarduera sustatu edo gauzatzen duen pertsona fisiko zein juridikoa, nortasun juridikorik gabekoa barne.

2. Ordenantza honetan ezarritako betekizunez gain, onuradunek hurrengoak ere bete behar dituzte:

- Legearen arabera eraturako eta irabazasmorik gabeko erakunde edo elkarteak izatea, erregistro egokian erregistraturik egotea eta jarduerak udalerrian burutzea.
- Noizbehinka irabazasmorik gabeko talde baten banakako ordezkari moduan diharduen pertsona fisikoa izatea, talde hori udalerrian erroldatu denean.
- Honako jarduera hauek burutzen dituzten ikastetxe edo institutuak izatea: hezkuntza eta gizarte arloetako edo hiriko jarduerak, edota euskara bultzatu nahiz normalizatzekoak, baldin eta azken horiek bat badatoz Amorebieta-Etxanoko EBPNren helburuekin; irakaskuntza-jarduerak bazter utziko dira.

3.- Udalerriko ikastetxe eta ikastolek Gizarte Segurantzako kuotak eta tributuzorrak ordaindu dituztela egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu behar dituzte, ordenantza honen 7. artikuluan ezarritakoa salbu.

### 39. artikulua.- Balorazio-irizpideak

Hauexek dira balorazio-irizpideak:

- a) Proposamena egin duen pertsona edo erakundeak Amorebieta-Etxanoko udalerriarekin duen lotura edo bertakotzea (gehienez 15 puntu).
- b) Eskatzaileak gauzatutako jarduerari urteetan ekitea (gehienez 15 puntu).
- c).- Beste erakunde batzuen finantzaketa-bideak erabiltzeko zailtasuna (gehienez 5 puntu).
- d) Eskatzaileak dituen baliabide ekonomikoak (gehienez 5 puntu).
- e) Jarduera-mota, honako hurrenkeraren arabera (gehienez 25 puntu):
  - zehatza: tokiko ezaugarriak garatzen dituen (hizkuntza, toponimia...)
  - teknologia berriak erabiltzea.
  - haurrentzat izatea.
  - gazteentzat izatea.
  - edonorentzat izatea.



Amorebieta Etxanoko Udala

- f) Jardueraren iraupena eta aldizkakotasuna (gehienez 10 puntu).
- g) Proiektua originala eta berria izatea (gehienez 5 puntu).
- h) Proiektua bat etortzea Amorebieta-Etxanon Euskara Biziberritzeko onetsi den Plan Nagusiaren helburuekin (gehienez 5 puntu).
- i) Jarduera euskara hutsean gauzatzea (gehienez 5 puntu).
- j) Jarduerak eginiko ekarpena, berdintasun-harremanak sustatu eta mantentzeari dagokionez (hizkuntza, arraza, erlijio edo sexuaren ondoriozko berdintasuna) (gehienez 5 puntu).
- k) Inguruari, ingurumenari eta naturari zor zaion begirunea (gehienez 5 puntu).

#### 40. artikulua.- Ebazpena jakinarazteko epea.-

Diru-laguntza ematearen inguruko ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie gehienez 6 hilabeteko epean, eskabidea egin zenetik zenbatzen hasita; ebazpen horretan behar bezala azalduko dira erabakiaren arrazoiak.

#### 41. artikulua.- Diru-laguntza egiaztatzeko epea.-

Egiaztagiriak aurkezteko, onuradunek 2 hilabeteko epea izango dute, laguntzapeko jarduera amaitu denetik zenbatzen hasita, salbu eta deialdian beste epe berezi bat ezarri denean.

### HIRUGARREN ATALA.- DIRU-LAGUNTZAK, UDALERRIKO IKASTETXE PUBLIKO ETA PRIBATUEK GAUZATUTAKO ESKOLA-JARDUERENTZAT.

#### 42. artikulua.- Diru-laguntzaren xedea

1. Diru-laguntza honen xedea da udalerriko eskola, ikastetxe eta ikastolek antolatutako zenbait ekimen finantzatzea, ekimen horien helburua denean hezkuntza eta gizarte arloetako edo hiriko jarduerak antolatzea udalerrian.

2.- Diru-laguntza emateko, elkarlehia bidezko pilotze-prozedura erabiliko da, ordenantza honetan finkatutako parametroak eta titulu honetan ezarritako berezitasunak gogoan izanda. Taxu berean, diru-laguntza hau bateragarria da, onuradunek eska dezaketene beste batzuekin, horien ezaugarriak berdinak nahiz antzekoak direnean.

#### 43. artikulua.- Onuradunak.

Onuraduna izango da, hezkuntza eta gizarte arloetako jarduerak edo hiriko jarduerak gauzatzen dituen ikastetxe edo institutua; betiere, Gizarte Segurantzako kuotak eta tributu-zorrak ordaindu dituela egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, ordenantza honen 7. artikuluan ezarritakoa salbu.



Amorebieta Etxanoko Udala

#### 44. artikulua.- Balorazio-irizpideak

Hauexek dira balorazio-irizpideak:

- a) Proposamena egin duen pertsona edo erakundeak Amorebieta-Etxanoko udalerriarekin duen lotura edo bertakotzea (gehienez 15 puntu).
- b) Eskatzaileak gauzatutako jarduerari urteetan ekitea (gehienez 15 puntu).
- c).- Beste erakunde batzuen finantzaketa-bideak erabiltzeko zailtasuna (gehienez 5 puntu).
- d) Eskatzaileak dituen baliabide ekonomikoak (gehienez 5 puntu).
- e) Jarduera-mota, honako hurrenkeraren arabera (gehienez 25 puntu):
  - zehatza: tokiko ezaugarriak garatzea (hizkuntza, toponimia...)
  - teknologia berriak erabiltzea.
  - haurrentzat izatea.
  - gazteentzat izatea.
  - edonorentzat izatea.
- f) Jardueraren iraupena eta aldizkakotasuna (gehienez 10 puntu).
- g) Proiektua originala eta berria izatea (gehienez 5 puntu).
- h) Jarduerak eginiko ekarpena, berdintasun-harremanak sustatu eta mantentzeari dagokionez (hizkuntza, arraza, erlijio edo sexuaren ondoriozko berdintasuna) (gehienez 5 puntu).
- i) Inguruari, ingurumenari eta naturari zor zaion begirunea (gehienez 5 puntu).

#### 45. artikulua.- Ebazpena jakinarazteko epea.-

Diru-laguntza ematearen inguruko ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie gehienez 4 hilabeteko epean, eskabidea egin zenetik zenbatzen hasita; ebazpen horretan behar bezala azalduko dira erabakiaren arrazoiak.

#### 46. artikulua.- Diru-laguntza egiaztatzeko epea.-

Egiaztagiria aurkezteko, onuradunek 2 hilabeteko epea izango dute, laguntzapeko jarduera amaitu denetik zenbatzen hasita, salbu eta deialdian beste epe berezi bat ezarri denean.

LAUGARREN ATALA.- UDALERRIAREN MERKATARITZA-ESPARRUAN  
ERROTULUAK, WEB-ORRIAK ETA KORPORAZIOAREN IRUDIAK EUSKARAZ  
JARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK



Amorebieta Etxanoko Udala

#### 47. artikulua—Diru-laguntzaren xedea

1. Diru-laguntza honen xedea da Amorebieta-Etxanoko merkataritza finantzatzea, errotuluak, web-orriak eta korporazioaren irudiak euskaraz jartzeko.

2.- Diru-laguntza emateko, elkarlehia bidezko pilotze-prozedura erabiliko da, ordenantza honetan finkatutako parametroak eta titulu honetan ezarritako berezitasunak gogoan izanda. Taxu berean, diru-laguntza hau bateragarria da, onuradunek eska dezaketen beste batzuekin, horien ezaugarriak berdinak nahiz antzekoak direnean.

3.- Deialdian esleitutako kreditua nahikoa bada aurkezpen-epea amaitutakoan aurkeztu den eskabide-kopurua ikusita, ez da kontuan hartuko betekizunak betetzen dituzten eskabideen arteko hurrenkera.

#### 48. artikulua.- Onuradunak.

1.- Ordenantza honetan ezarritakoez landa, hurrengo betekizunak betetzen dituzten pertsonak onuraduntzat hartuko dira:

- Errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntzaren onuradunak: egoitza Amorebieta-Etxanon duten merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduetako arduradunak.
- Korporazioaren irudia euskaraz jartzeko diru-laguntzaren onuradunak: egoitza Amorebieta-Etxanon duten merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduetako arduradunak.
- Web-orriak euskaraz jartzeko diru-laguntzen onuradunak: udalerriko elkarte edo erakundeak.

Edozein kasutan ere, horiek guztiek Gizarte Segurantzako kuotak eta tributu-zorrak ordaindu dituztela egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu behar dituzte.

2.- Aurreko ekitaldian web-orria egiteko diru-laguntza jaso zuten erakundeek kasuan kasuko urteko diru-laguntza jaso dezakete.

#### 49. artikulua.- Eskabideak.

Ordenantza honetako I. tituluan araututako eskabide normalizatuaz gain, hauxe aurkeztu behar da:

-Kanpoko errotuluaren testua eta argazkia, korporazio-irudiaren testua eta argazkia edo web-orriaren testua. Testua ondo idatzita egon behar da. Horretarako, interesdunak laguntza teknikoa eska diezaioke Euskararen Udal Zerbitzuari.

#### 51. artikulua.- Balorazio-irizpideak

1. Errotulazioa:



Amorebieta Etxanoko Udala

1. Euskara hutsean eginiko errotulazioa: diru-laguntzaren zenbatekoa izango da, egiaztatu denaren %50 (500€ baino gutxiago).
  2. Euskaraz eta gaztelaniaz egindako errotulazioa: diru-laguntzaren zenbatekoa izango da, egiaztatu denaren %25 (300€ baino gutxiago).
  - 3.
2. Korporazioaren irudia:

-Euskara hutsean egindako korporazio-irudia: diru-laguntzaren zenbatekoa izango da, egiaztatu denaren %50 (500€ baino gutxiago).

-Euskaraz eta gaztelaniaz egindako korporazio-irudia: diru-laguntzaren zenbatekoa izango da, egiaztatu denaren %25 (300€ baino gutxiago).

3. Web-orriak:

-Euskara hutsean egindako web-orria: diru-laguntzaren zenbatekoa izango da, egiaztatu denaren %50 (800€ baino gutxiago).

-Euskaraz eta gaztelaniaz egindako korporazio-irudia: diru-laguntzaren zenbatekoa izango da, egiaztatu denaren %25 (500€ baino gutxiago).

52. artikulua.- Ebazpena jakinarazteko epea.-

Diru-laguntza ematearen inguruko ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie gehienez 6 hilabeteko epean, eskabidea egin zenetik zenbatzen hasita; ebazpen horretan behar bezala azalduko dira erabakiaren arrazoiak.

51. artikulua.- Diru-laguntza egiaztatze epea.-

Egiaztagiriak aurkezteko, onuradunek 2 hilabeteko epea izango dute, laguntzapeko jarduera amaitu denetik zenbatzen hasita, salbu eta deialdian beste epe berezi bat ezarri denean.

BOSGARREN ATALA.- EUSKARAZKO IKASTAROAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

53. artikulua—Diru-laguntzaren xedea

1.- Diru-laguntza honen xedea da Amorebieta-Etxanoko biztanle eta auzotarrei diru-laguntza ematea, baldin eta 16 urte baino gehiago izanda, euskalduntze- zein alfabetatze-ikastaroak egin badituzte homologaturiko barnetegi nahiz euskaltegi publiko edo pribatuetan.

2.- Diru-laguntza emateko, elkarlehia bidezko pilotze-prozedura erabiliko da, ordenantza honetan finkatutako parametroak eta titulu honetan ezarritako berezitasunak gogoan izanda. Taxu berean, diru-laguntza hau bateragarria da,





Amorebieta Etxanoko Udala

onuradunek eska dezaketen beste batzuekin, horien ezaugarriak berdinak nahiz antzekoak direnean.

#### 54. artikulua.- Eskabideak.

##### 1. Eskabideekin batera, honako agiriak aurkeztu behar dira:

1. Eskatzailearen NANaren fotokopia.
2. Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia. Ikastaroa barnetegian eginez gero, matrikularen kostua banakatu behar da, hori bakarrik hartuko delako kontuan, eta ez, ordea, egonaldia.
3. Euskaltegiaren ziurtagiria. Horren bitartez, hauxe egiaztatu behar da:

-Ikaslea eskolen %80ra joan dela gutxienez.

- Ikasleak zein mailatarako matrikula egin, eta maila horien %65 gainditu dituela.

Diru-laguntza handiagoa nahi dutenek, ziurtagiri hori ez ezik, jarraiko agiriak ere aurkeztu behar dituzte:

##### 0-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten ikasleek:

-Familia-liburuaren fotokopia.

-Seme-alaba zein ikastetxetan matrikulatuta egon, eta horren ziurtagiria.

##### Umeen edo adineko pertsonen zaintzaileek:

-Pertsona horiek zein erakunderentzat lan egin, eta erakunde horren ziurtagiria edo zein familiaren zerbitzuplean lan egin, eta familia horren adierazpen azaltzailea.

##### Merkataritza nahiz ostalaritzako enplegatuek:

-Establezimenduaren lege-ordezkariek luzatutako ziurtagiria.

##### Aisialdirako begiraleek:

-Zein erakunderentzako lan egin, eta horren ziurtagiria.

##### Familia-unitatean bi kide edo gehiago ari direnean euskara ikasten:

- Familiaren erroldatze-ziurtagiria.



Amorebieta Etxanoko Udala

Oinarri hauetan familia-unitate bakoitzeko ezarri diren diru-sarrerak baino txikiagoak dituzten ikasleek:

- Familia-unitateko kide guztien PFEZren aitortpena.
- Ez bada beharrezkoa PFEren aitortpena aurkeztea, jasotako diru-sarrerak egiaztatzeko agiria (Gizarte Segurantzaren edo kasuan kasuko erakundearen ziurtagiria).
- Familiaren erroldatze-ziurtagiria (Udaleko Estatistika Sailean).

Oinarrizko Errenta edo Gizarte-larrialdiaren ondoriozko laguntza jasotzen dutenek:

- Diru-laguntza horiek jaso dituztela egiaztatzeko ziurtagiria.

55. artikulua.- Onuradunak.

1.- Diru-laguntza hau jaso dezakete Amorebieta-Etxanon erroldatutako pertsonak, baldin eta euskalduntze- zein alfabetatze-ikastaroak egin badituzte homologatutako barnetegi nahiz euskaltegi publiko edo pribatuetan.

2.- Ikastaroa Hizkuntza Eskola Ofizialean edota IRALE nahiz HAEEren programa berezien bitartez egin denean, ezin daiteke jaso diru-laguntza hau, ezta laguntza enpresak edo erakundeak berak eskaini duenean ere.

3.- Gisa bertsuan, HABEK emandako diru-laguntza lortzea ahalbidetzen dituzten azterketak gainditu direnean, alegia, 1. maila, 2. maila eta EGA, ezin daiteke jaso diru-laguntza hau. .

56. artikulua.- Diru-laguntzak adjudikatzeko irizpideak

Honako portzentaje hauen araberako diru-laguntzak emango dira:

a) Matrikula-kostuaren %30: halako diru-laguntza jasoko dute eskolen %80ra joan direla eta matrikulatutako mailen %65 gainditu dutela egiaztatzen duten ikasleek.

b) Matrikula-kostuaren %50:

- 0-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten ikasleek.
- Umeen edo adineko pertsonen zaintzaileek.
- Merkataritza nahiz ostalaritzako enplegatuek.
- Aisialdirako begiraleek.

c) Matrikula-kostuaren %75:

- Familia-unitateko bi kide edo gehiago euskara ikasten ari direnean.



Amorebieta Etxanoko Udala

- Familia-unitateko kide bakoitzak 3.460,00 € baino gutxiago irabazten duenean.

d) Matrikularen %100:

- Oinarrizko Errenta edo Gizarte-larrialdiaren ondoriozko Laguntza jasotzen duten pertsonak.

Kasu guztietan, ikaslea gutxienez eskolen %80ra joan behar izan da, eta, horrez landa, matrikulatutako mailen %65 gainditu behar izan ditu.

57. artikulua.- Ebazpena jakinarazteko epea.-

Diru-laguntza ematearen inguruko ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie gehienez 4 hilabeteko epean, eskabidea egin zenetik zenbatzen hasita; ebazpen horretan behar bezala azalduko dira erabakiaren arrazoiak.

58. artikulua.- Diru-laguntza egiaztatzeke epea.-

Egiaztagiria aurkezteko, onuradunek 2 hilabeteko epea izango dute, laguntzapeko jardura amaitu denetik zenbatzen hasita, salbu eta deialdian beste epe berezi bat ezarri denean.

## **HIRUGARREN KAPITULUA: KIROL ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK**

### **ATAL BAKARRA.- AMOREBIETA-ETXANOKO UDALERRIAN KIROL JARDUERAK FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK**

59. artikulua—Diru-laguntzaren xedea

1.- Diru-laguntza honen xedea da elkarteek edo bestelako erakundeek antolatutako kirol jarduerak finantzatzea, erakundearen urteko zereginari lotutako ekintzak ordainduz, hots, erakunde eskatzailearen ohiko jardunbide-programa osatzen duten jarduerak eta bestelako kirol proiektuak, batez ere berriak direnak, finantzatu.

2.- Diru-laguntza emateko, elkarlehia bidezko pilotze-prozedura erabiliko da, ordenantza honetan finkatutako parametroak eta titulu honetan ezarritako berezitasunak gogoan izanda. Taxu berean, diru-laguntza hau bateragarria da, onuradunek eska dezaketen beste batzuekin, horien ezaugarriak berdinak nahiz antzekoak direnean.

60. artikulua.- Onuradunak.

1.- Onuraduna izango da, aurreko puntuan aipatu jardura sustatu edo gauzatu duen pertsona fisiko zein juridikoa, nortasun juridikorik gabekoa barne.



Amorebieta Etxanoko Udala

2. Ordenantza honetan ezarritako betekizunez gain, onuradunek hurrengoak ere bete behar dituzte:

- Legearen arabera eraturako eta irabazasmorik gabeko erakunde edo elkarteak izatea, erregistro egokian erregistraturik egotea eta jarduerak udalerrian burutzea. Gizarte Segurantzako kuotak eta tributu-zorrak ordainduta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztea.
- Noizbehinka irabazasmorik gabeko talde baten banakako ordezkari moduan diharduen pertsona fisikoa izatea, talde hori udalerrian errolatu denean.

61. artikulua.- Balorazio-irizpideak

Hauexek dira balorazio-irizpideak:

- a) Proposamena egin duen pertsona edo erakundeak Amorebieta-Etxanoko udalerriarekin duen lotura edo bertakotzea (gehienez 15 puntu).
- b) Eskatzaileak gauzatutako jarduerari urteetan ekitea (gehienez 15 puntu).
- c).- Beste erakunde batzuen finantzaketa-bideak erabiltzeko zailtasuna (gehienez 5 puntu).
- d) Eskatzaileak dituen baliabide ekonomikoak (gehienez 5 puntu).
- e) Kirol arloari dagokionez, jarduerak duen kalitatea eta interesa (gehienez 10 puntu).
- f) Programak duen eragina eta eskaintzen duen laguntza, udalerriko kirol-garapenari begira (gehienez 10 puntu).
- g) Jarduera edo proiektuaren berritasuna eta egokitasuna (gehienez 5 puntu).
- h) Proiektua bat etortzea, eskabidean zehaztutako helburuekin. (gehienez 5 puntu)
- i) Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa (gehienez 5 puntu).
- j) Programaren hezkuntza-errentagarritasuna, gizarte- eta kultura errentagarritasuna, etab. (gehienez 5 puntu).
- k) Erakunde eskatzaileak egin dituen ahaleginak, antolaketa, egitura eta ekonomiaren aldetik (gehienez 5 puntu).
- l) Jarduera gauzatzeko ekitaldi-kopurua (gehienez 5 puntu).
- m) Jarduera horrek duen eragina, gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatzean (gehienez 5 puntu).
- n).- Jarduera gauzatzea, bi hizkuntza ofizialak erabilita (gehienez 5 puntu).

62. artikulua.- Ebazpena jakinarazteko epea.-



Amorebieta Etxanoko Udala

Diru-laguntza ematearen inguruko ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie gehienez 4 hilabeteko epean, eskabidea egin zenetik zenbatzen hasita; ebazpen horretan behar bezala azalduko dira erabakiaren arrazoiak.

63. artikulua.- Diru-laguntza egiaztatzeko epea.-

Egiaztagiriak aurkezteko, onuradunek 2 hilabeteko epea izango dute, laguntzapeko jarduera amaitu denetik zenbatzen hasita, salbu eta deialdian beste epe berezi bat ezarri denean.

### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Diru-laguntzak arautzeko oinarri berezietan ezarritakoa salbu, Amorebieta-Etxanoko udalak emandako diru-laguntzei ordenantza hau aplikatuko zaie.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Ordenantza indarrean jarri aurretik hasitako prozeduren kasuan, alabaina, horiek hasi zirenean indarrean zegoen arautegia aplikatuko da.

### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean jarriko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun igarotakoan, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz.

## I. ERANSKINA.- DIRULAGUNTZAREN ESKARIA

Eskatzailearen izen-abizenak/ Nombre y apellidos del solicitante		NAN/DNI
Jakinarazpenak egiteko helbidea/Domicilio a efecto de notificaciones	Herria/Municipio	Telf.
<input type="checkbox"/> Norbere izenean jarduten ari naiz/ Actúo en nombre propio. <input type="checkbox"/> Erakunde baten ordezkari moduan jarduten ari naiz/ Actúo en representación de una entidad.		
<b>ESKATZAILEA PERTSONA JURIDIKOA IZAN EZKERO BAKARRIK BETE/ RELLENAR EL CUADRO EN EL CASO DE EL/LA SOLICITANTE SEA UNA PERSONA JURÍDICA</b>		
Erakunde eskatzailearen izena/Nombre de la entidad solicitante		IFK/CIF
Jakinarazpenak egiteko helbidea/Domicilio a efecto de notificaciones	Herria/Municipio	Telf.
Ordezkarri legala/Representante legal		
<b>Eskaeraren objektua/Objeto de la solicitud</b>		
<input type="checkbox"/> <b>Konturako ordainketak eskatzen ditut / solicito pagos a cuenta.</b> <input type="checkbox"/> <b>Aurretiazko ordainketa eskatzen dut / solicito el pago anticipado.</b>		
<b>Eskaturiko dirulaguntzaren zenbatekoa/Cuantía solicitada</b>		

Amorebieta-Etxanon, 200 (e)ko (a)ren (e)an.  
 En Amorebieta-Etxano, a de de .  
 AURKEZLEAREN SINADURA / FIRMA DE LA PERSONA QUE PRESENTA

*(Gurutze batekin marka itzazu aurkeztutako agiriak/ Marque con una cruz la documentación aportada.)*

**IDENTIFIKAZIO EDO ORDEZKARITZA ZIURTATZEKO PERTSONA FISIKOEN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK/DOCUMENTACIÓN A APORTAR POR LAS PERSONAS FÍSICAS PARA LA ACREDITACIÓN DE LA IDENTIFICACIÓN O LA REPRESENTACIÓN.**

- Eskatzailearen NAN fotokopia/Fotocopia del DNI del solicitante.
- Errolda ziurtagiria/Certificado de empadronamiento.

**IDENTIFIKAZIO EDO ORDEZKARITZA ZIURTATZEKO PERTSONA FISIKOEN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK/DOCUMENTACIÓN A APORTAR POR LAS PERSONAS FÍSICAS PARA LA ACREDITACIÓN DE LA IDENTIFICACIÓN O LA REPRESENTACIÓN.**

- IFK/CIF.

- Beharbezala eta dagokon erregistro ofizialean inskribatutako organo eta ordazkarien izendapenaren akordioa/Acuerdo de nombramiento de sus órganos y representantes, debidamente inscritos en su correspondiente registro oficial si lo hubiere.
- Inskribatutako estatutuak/Estatutos, igualmente inscritos.
- Ordezkiaren NAN/DNI del representante.

**PERTSONA FISIKO ETA JURIDIKOEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK/DOCUMENTOS A PRESENTAR POR PERSONAS FÍSICAS Y JURÍDICAS.**

- Eskatzaile pertsona fisiko edo erakundearen ordezkariaren zinpeko aitortena, 38/2003 Dirulaguntza Orokorren Legearen 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako onuradun izateko bateraezintasun kasuetatik batetan ere ez dagoela adieraziz/Declaración jurada del solicitante persona física o del representante legal de la entidad de no estar incurso en Causas de incompatibilidad con la condición de beneficiario del artículo 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. (ANEXO II)
- Dirulaguntza lortzeko proiektua deskribatzen duen memoria eta dirulaguntza oinarrietan ezartzen den kasuetan/Memoria descriptiva del proyecto en virtud del cual se pretende obtener la subvención.
- Dirulaguntzaren objektuarekin zerikusia duen jarduera edo proiektuaren kostua ziurtatzen dituen ordainagiri eta ziurtagiriak/Facturas y documentos justificativos del coste de la actividad o proyecto a subvencionar.
- (aurretzako ordainketen kasuan) Jardueraren aurrekontu zehatz eta bereiztua/(en caso de pagos anticipados) Presupuesto detallado y desglosado de la actuación. (ANEXO III)
- Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren betearazpena ziurtatzen duten agiriak/Documentación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social. (ANEXO IV en el caso de validez de declaración jurada)
- Helburu berdinarekin, beste nazio edo nazioarteko Administrazio edo erakunde publiko edo pribatuengandik jasotako dirulaguntza edo laguntzen gaineko aitortena/Declaración de las subvenciones o ayudas que el solicitante hubiese obtenido para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales. (ANEXO V)
- Documentación requerida cuando el gasto supere la cuantía de 30.000 euros en el supuesto de ejecución de obra, o de 12.000 euros en el supuesto de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica: memoria valorada de las obras o proyecto de obras, en su caso; tres presupuestos de diferentes proveedores y justificación en caso de que no se haya elegido la más ventajosa.

## II. ERANSKINA - DIRULAGUNTZAK LORTZEKO BATERAEZINTASUN KARIRIK BETETZEN EZ DELA ADIERAZTEN DUEN ZINPEKO AITORPENA

Nik, ....., ..... NAN zenbakiarekin eta jakinarazpenetarako..... helbidea dudan honek,

*(eskatzailea pertsona juridikoa denean hurrengoia bete),*

.....-ren izen eta ordezkartzan, jakinarazpenetarako..... helbidea dudalarik, eta ..... IFK zenbakiarekin,..... bezala,

### ADIERAZTEN DUT:

Ez ni neu, ezta ordezkartzen dudan Erakundea bera ere, ez gaudela azaroak 17ko Dirulaguntza Orokorraren 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako dirulaguntzen onuradun izateko baterazintasun ez debeku kasuetatik batetan ere.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak sor distant agiri hau sinatzen dut, 20.....ko.....-aren .....ean.

Sinadura.



### III. ERANSKINA - AURREKONTU EREDUA

.....

#### DIRULAGUNTZA JASOTZEKO AURREKONTUA

Nik, ....., ..... NAN zenbakiarekin eta jakinarazpenetarako ..... helbidea dudanez, honek,

(eskatzailea pertsona juridikoa denean hurrengo bete),

.....-ren izen eta ordezkari, jakinarazpenetarako ..... helbidea dudalarik, eta ..... IFK zenbakiarekin, ..... bezala,

..... dirulaguntza eskaerari dagokion hurrengo aurrekontua aurkezten dut, horren zenbatekoa zehazteko asmoz.

<b>1. GASTUA</b>	
KONTZEPTUA	
ZENBATEKOA	
EMATEN DUEN ERAKUNDEA	
<b>2. GASTUA</b>	
KONTZEPTUA	
ZENBATEKOA	
EMATEN DUEN ERAKUNDEA	
<b>3. GASTUA</b>	
KONTZEPTUA	
ZENBATEKOA	
EMATEN DUEN ERAKUNDEA	
<b>4. GASTUA</b>	
KONTZEPTUA	
ZENBATEKOA	
EMATEN DUEN ERAKUNDEA	
<b>TOTAL</b>	
<b>FINANTZIAZIO ITURRIAK</b>	

Amorebieta-Etxanon, ..... ko .....aren .....ean.

Sinadura:

**IV ERANSKINA - TRIBUTU ZOR ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKO ZORREN  
BETEPENARI BURUZKO AITORPEN ARDURADUNA**

Amorebieta-Etxanoko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 7.2) artikulua jasotako betebeharren arabera eta azaroare 17ko Dirulaguntzen 37/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22.1 eta 24.4 artikuluek ezarritakoa betez, Nik, ....., NAN zenbakiarekin eta jakinarazpenetarako ..... helbidea dudan honek,

(*eskatzailea pertsona juridikoa denean hurrengo bete*),  
.....-ren izen eta ordezkartzan, jakinarazpenetarako ..... helbidea dudalarik, eta ..... IFK zenbakiarekin,..... bezala,

**AITORTZEN DUT:**

**LEHENENGOA.-** ..... objektua betetzeko eskatu den zenbatekoa, 3.000eurotik beherakoa dela.

**BIGARRENA.-** Ni neu/ ordezkatzan dudan sozietate edo elkarte tributu zorrak edo Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuoten ordainketan egunera nagoela/dagoela.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak zor distan, agiri hay sinatzen dut,  
.....an,.....ko .....aren.....ean.

Sinadura:

## V. ERANSKINA - FINANTZIAZIORAKO AITORPEN ARDURADUNA

Nik, ....., ....., NAN zenbakiarekin eta jakinarazpenetarako..... helbidea dudan honek,

(eskatzailea pertsona juridikoa denean hurrengo bete),

.....-ren izen eta ordezkartzan, jakinarazpenetarako ..... helbidea dudalarik, eta ..... IFK zenbakiarekin, ..... bezala,

### AITORTZEN DUT:

**LEHENENGOA.-** Ez dudala jaso/eskatu Amorebieta-Etxanoko Udalak eman duen dirulaguntzarekin bateraezina den fondorik.

**BIGARRENA.-** Amoebieta-Etxanoko Udalak eman duen dirulaguntzarekin bateragarriak diren hurrengo fondo edo laguntzak eskuratu/eskatu direla hurrengo erakundeen eskutik/erakundeei:

DIRULAG.	ERAKUNDEA	KONTZEPTUA	ESKATUTAKO ZENBATEKOA	EMANDAKO / JASOTAKO ZENBATEKOA
1 <sup>a</sup>				
2 <sup>a</sup>				
3 <sup>a</sup>				
4 <sup>a</sup>				
5 <sup>a</sup>				

**HIRUGARRENA.-** Bigarren aitortzan deskribatu diren fondoak dirulaguntza eskatu zeneko ..... helburuarekin erabili direla.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak sor distan, agiri hau sinatzen dut, .....n, .....ko .....aren .....ean.

Sinadura: